

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2024-02-09 OSTIRALA / 893. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



**IHOTEETARAKO
PREST!**



Aaron Ortiz chef eta Jaione Aizpurua sommelierri bikotea dira, lanean eta bizitzan. Kabok lortutako Michelin izarra jasotzen. **KABO**

"Guztia oso azkarra izan da; ez dugu izarra barneratu"

AARON ORTIZ GARCIA KABO JATETXEKO SUKALDARIA ETA JABEKIDEA

Aaron Ortiz chef irurtzundarrak eta Jaione Aizpurua sommelier auzatarrak sortutako Iruñeko Kabo jatetxeak Repsol gidako eguzkia eta Michelin izarra lortu ditu epe laburrean

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

Iruñeko Kabo jatetxea Aaron Ortiz Garcia sukaldari irurtzundarraren eta Jaione Aizpurua Bengoetxea sommelier auzatarraren sormena, proiektua eta etxea da. Kabo ez litzateke existituko Aaron gabe, ezta Jaione gabe ere. Biek talde zatiezina eta perfektua osatzen dute. Kaboren aireratzea zirrargarria izan da: Repsol gidako eguzkiaren ondotik, *Tapas* aldizkariaren Urrezko T saria iritsi zen, eta, azkenik, Michelin izarra.

TREBAKUNTZA

Aaron, nola hasi zinen sukaldean?

Ikasle kaxkarrak nintzen, eta sukaldaritza gustuko nuen. Ibaialden (Burlata) sukaldaritza ikasten hasi nintzen, eta hilabetera irakasleak Oliteko Casa Zanitorra bidali ninduen lanera. Irakasleak esan zidan sukaldaritza tradizionala ikasi beharra nuela, gero gainontzeko sukaldaritzetan murgildu ahal izateko. Ibaialdeko praktikak La Perla hotelean egin nituen, Alex Mugikarekin, eta beste urte batez jarraitu nuen Alexekin lanean. Urte horretan, 2014an, akademiako Nafarroako Gastronomía Bikaintasun saria eman zidaten. Ser irratiko elkarriketa batean, nire ametsaz galdetu zidaten, eta Andoni Adurizekin Mugaritzera joatea zela erantzun nien. Bizitzaren bueltak, han bertan Adurizen kolaboratzaile bat zegoen, eta Mugaritzen praktikak egitea proposatu zidaten. Sukaldean geunden 50 pertsonen artean I+D+I departamenduan aritzeko zortzi sukaldarien artean hautatu ninduten. Praktikak bukatuta, Jaione ezagutu nuen.

Jaione ere curriculum aparta du sommelier, barrako eta jatetxe arduradun gisa.

Bai, esperientzia handia du. Biok bat egin genuen. Hasieran Eu-

ropan barna zazpi hilabete pasatxo egon ginen hainbat ekimenean Nafarroako sukaldeak sustatzen. Ondoren, Buenos Airesera jo genuen, Casa Cavia sukaldaritza proiektuan hartzerira. Hamaika hilabete pasa eman genituen, baina Argentina herrialde zaila da, eta itzultzea erabaki genuen. Itzuleran Tres Reyes Hotelean lan egin genuen, baina 2018an gure proiektua sortu behar genuela erabaki genuen. Eta 2019an Kabo jatetxea zabaldu genuen Hotel Avenidako lehen pisuan.

PANDEMIA

Jatetxea zabaldu, eta hilabete gutxira COVID-19 pandemia etorri zen.

Pandemiak harrapatu, eta bi urte eta erdi baino gehiago egon ginen zuloan, 18 hilabete baino gehiago itxita. Gainera, COVID-19 laguntzak ezin genituen jaso, zabaldu berriak ginenez ezin genituelako aurreko urteko errenta aitortpenak aurkeztu. Soilik gutxieneko laguntza genuen. Jatetxea zabaldu genuenean, hotelarekin arazoak hasi ziren. Oso zaila da hotela eta jatetxe propio batek bat egitea. Ondoko bizilagun batzuei esker, 13 urte baino gehiago itxita zeuden lokal batzuk alokatzeko aukera izan genuen hotelaren aurrean, Zaragoza etorbideko 10, zenbakian. Sonagar (Sociedad Navarra de Garantía Reciproca) eta Rural Kutxaren laguntza eta finantziarioari esker gaude gauden tokian.

KABO BERRIA

Kaboren aireratzea ikaragarria izan da, meteorikoa.

Guztia oso azkar joan da; uste dut oraindik ez dugula guztia behar bezala barneratu. Hotel Avenidan geundela Repsol gidako Eguzkia eman ziguten, 2022an, eta 2023an mantendu genuen. Avenidako Kabo itxi baino aste-



bete lehenago jakinarazi ziguten Michelin gidan gomendioa eman zigutela. Gidakoei jakinarazi genien jatetxe berria zabaldu behar genuela. 2023ko apirilaren 26an mustu genuen Kabo berria, eta ekainean Nafarroako sala zerbitzu onenaren saria eman ziguten. Irailean *Tapas* aldizkari-ko T saria eman ziguten, eta azaroaren 28an ginga iritsi zen, Michelin izarra. Urte borobila izan da, baina aldi berean guztia oso azkarra izan da. Ez da normala gidek kokagune berria duen jatetxe bati horrenbeste sari ematea, baina uste dut egindako lanaren fruitua dela, bizitza honetan inork ez duelako ezer oparitzen. Inspektoreak gure etxetik pasa dira, eta eurak izan dira izarra eta bestelako sariak eman dizkigutenak.

Kabok tximeleta esan nahi du masai hizkuntzan. Kabo kontzeptua oinarri hartuta, "zentzumen esperientzia" eskaintzen duzue, beldarretik tximeletara dagoen metamorfosia, lau etapatan: jatorria, ideagintza, esposizioa eta esperientzia. Zer eskaintzen du Kabok?

Jende gehienak uste du jatetxe batera joatea, jatera joatea dela. Gurea bestelako kontzeptu gastronomikoa da. Jatera joateaz aparte, jendeak mahai baten inguruan esperientzia bat bizitzea lortu nahi dugu. Lau etapa horietan oinarrituta, zentzumen esperientzia lortu nahi dugu: jatorria, oso argi izan behar dugulako nondik gatozen eta zer egiten dugun; ideagintza, gure kontzeptua alor eta eremu guztietan garatzen dugulako; esposizioa, aurreko guztia bezeroari nola azaltzen eta aurkezten dugun; eta esperientzia, etapa guztien batasuna. Gure etxera datorren bezeroa beldarra bezala dator, toki berri batera, eta ez daki zer topatuko duen. Kaboko esperientzia bizita, tximeleta

batean bilakatuta ateratzea lortu nahi dugu. Metamorfosia.

Eta nola lortzen da hori?

Bezeroa etxera datorrenetik, jatorrian kokatzen dugu. Gure oinarria Nafarroa da, etxea. Batetik, bezeroa etxean bezala sentitzea nahi dugu, eta horregatik, zerbitzatzeko modua oso gertukoa da. Jendearekiko gertutasuna ez da galdu behar. Kaboko dekorazioa ere gertukoa da. Bestetik, produktuarekin berdin: Nafarroako produktuak dira gureak, Nafarroa puntatik puntara zeharkatzen dugu produkturik onenak eskuratzeko. Nafarroa aitzindaria da barazkietan. Lehen sektoreari ematen diogu balioa: nekazarria, abeltzaina, arrantzalea, okina... guztiaren hasiera dira, jatorria. Gure kartan produktu bakoitza zein ekoizlerena den izendatzen dugu, euren lanari ikusgarritasuna emateko. Bezeroak badaki tipulak Tuteran erosi ditugula, txahala Etxaurin eta foie Martikon. Nafarroako produktu bikain horiek erabilita, goi mailako dastatze menua sortu dezakegula erakutsi dugu. Nafarroa mahaian, hori da gure kontzeptua, eta uste dut horregatik dugula izan dugun harrera beroa. Bezeroak ikusten du prezioa justifikatuta dagoela, hama-lau platereko menua 95 eurotan. Baina ez da soilik jaten dena, askoz ere gehiago da.

Esperientzia guztia, ezta?

Bai. Gurera datorrenak badaki ez datorrela soilik bazkaltzera; horregatik dator horrenbeste jende. Ongi jan nahi dute, ontziteria ikusi nahi dute, plater bakoitzak bere baxera eta mahai-tresna ezberdinak dituelako, menua nola azaltzen dugun entzun nahi dute, eta jatetxeko lan talde guztia lanean ikusi nahi dute, kordinatuta, orkestra bat bailitzan. Kabon bezeroa da protagonista, bera da gure izarra. Guk ez da-

kigu mahai batean egon daitekeen kuadrillak urte osoa aurrezten daraman halako esperientzia bat bizi ahal izateko, edo lanpostu bat lortu izana ospatzen ari ote den, hala hamabostero halako esperientziak bizitzen dituen bezero mota den. Gure lana eta helburua da guztiek Kaboko esperientzia bizi eta goza dezatela. Ez da soilik jatea, guztia da.

Urtean lau menu ezberdin prestatzen dituzue, urtaroko bat, eta ez omen duzue platerik errepikatzen.

Urtean lau menu berri egiten ditugu; 58-60 plater berri prestatzen ditugu urtero. Urtaro bakoitzak bere barazkiak eta bere xarma ditu, eta hori islatu nahi dugu gure menuan. Alkatxofen aurtengo platera, ez da hurrengo urtekoa izango, ez ditugulako plater onenak edo baloratuenak errepikatzen. Bezeroen iritzia kontuan hartzen dugu, badakigu zein den gehien baloratzen duten platera, baina ez dugu errepikatuko. Agian, 14 urte barru klasi-koen menua prestatuko dugu, baina, momentuz, platerak ez ditugu errepikatzen. Urtaroka menua aldatzerakoan bezeroak berriro erakartzea da gure amuetako bat. Badaude urtaro aldaketa bakoitzean etortzen diren bezeroak. Sukaldearen kudea-

"NAFARROAKO PRODUKTUEKIN GOI MAILAKO DASTATZE MENUA SOR DAITEKEELA ERAKUTSI DUGU"

"KABORA DATORRENAK BADAHI GUREA BESTE GAUZA BAT DELA, BESTE HISTORIA BAT"

ketarako hiru hilabeteko karta aldatzea eromena da, baina horrek bezeroak guregana sarrago etortzea ekartzen du. Jendeak hitz egiten du, eta Nafarroan ahok ahokoak hobekien funtzionatzen du. Publizitaterik onena da.

EGUZKITIK IZARRERA

Michelin izarra jasotzea espero al zenuten?

Inola ere ez, eta are gutxiago Kabo berriak 7 hilabete zabalik zituela kontuan hartuta. Gure proiektuak 4 urte zituen, baina azken hilabeteetan etorri dira inspektoreak, jatetxe berrira. Bezeroek askotan esaten ziguten, noizbait izarren bat emango zigitela, baina ez zen helburu bat. Ezin dut ukatu Kabon lantzen dugun sukalde kontzeptua Michelin izarrak saritzen duena dela, baina guk ez genuen izarra lortzearen obsesio hori. Inola ere ez. Izarra izateagatik ez gara ez hobeak ezta okerragoak: Azaroaren 28an eman ziguten izarra, baina azaroaren 27an pertsona berberak ginen. Izarra lortzeagatik ez dugu prezioa igo; bi hilabete lehenago igo genuen, langileen hitzarmena, lehengaiak eta produktuak igo zirelako.

Nola jakin zenuten?

Eskutitza jaso genuen, azaroaren 28an Bartzelonan ospatuko zuten Michelin gidako galara gonbidatuz. Jatetxea itxi eta lan talde guztiarekin joan ginen Bartzelonara. Ez genekien zehatz ere zertara joaten ginen, hainbat izendapen banatzen baitziren: izar berdeak, salaren bikaintasunaren sariak, chef gazteen sariak, izarrak... Sukaldaritza munduko lankide batzuk zoriondu gintuzten, baina guk, ofizialki, ez genekien ezer. Galan izarrak banatzen ari zirela Nafarroa aipatu zutenean jakin genuen, eta izugarri poztu ginen. Bi miura bezala igo ginen oholtzara

Fitxa




AARON ORTIZ GARCIA
SUKALDARIA

Sukaldari iruztundarrak sekulako curriculum du, tartean: Casa Zanito, Hotel La Perla, Mugaritzeko I+D+i departamentuko kidea, Catering Cock, Casa Cavia, A Fuego Negro eta Kabo jatetxea. Sari ugari jaso ditu, tartean Basque Culinary Centerreko gastronomia talentu gazteen izendapena (2022) eta Nafarroako Gastronomia Saria (2022).



JAIONE AIZPURUA
BENGOETXEA SOMMELIERRA

Sommelierra, koktelgintzan aditua da. Esperientzia handia du jatetxeen sala eta barra antolakuntzetan. Curriculum: Asador Olive, Mar Salada, Shamrock, Usler, Club de Tennis, Bodegas Otazu, Restaurante Casa Cavia, Hotel Tres Reyes eta Kabo. Basque Culinary Centerreko gastronomia talentu gazteen izendapena du (2022).



(kar-kar), ez genuelako espero. Gertatu zaigun guztia disfrutatu beharra dugu, polita delako. Jatetxea egin baino lehen Jaionek eta biok izarra lortzearena zerbait eskuraezina bezala ikusten genuen, amets bat bezala; baina ez dela ezinezkoa ikusi dugu.

Izarrak berarekin presioa omen dakar, maila hori mantentzearen edo hobetzearen presioa.

Bezero batzuek esaten digute, orain bigarren izarra lortzera. Baina argi dugu ez garela erotuko; orain arte izan ez dugun obsesioa ez zaigu obsesio bilakatu behar. Guk lanean jarraituko dugu, eboluzionatzen, gure bezeroak ongi zaintzen, eta gure negozioa bideratzen. Ezin dugu ahaztu Kabo bion negozioa dela, eta zerbakiak ongi atera behar direla, ez baitugu atzean inbertsore handi bat, hainbat jatetxe famatuk duten bezala. Ezta nahi ere, hori oso argi genuen. Izarra mantentzen badugu edo hobetu, ongi, eta kentzen badigute, baita ere, guk berberak izaten jarraituko dugulako.

Oso polita da jatetxea ixtea eta lan talde guztiarekin Michelin izarren galara joatea.

Gure adineko chef gehienek (25-29 urte) euren jatetxeak itxi eta lantaldearekin joan ziren Bartzelonara, gu bezala. Oso polita iruditzen zait. Guk lau urte daramatzaguru gure lantalde berberarekin. 24-25 urteko gazteak dira, eta beraiekin denbora asko gaudu; niretako, familia dira. Ildo honetan, Kabon enpresa horizontalaren kontzeptuarekin lan egiten dugu. Hemen ez dago sukaldako nagusirik ez salako nagusirik. Ez dago mailarik, horrek, luzera, erretzen duelako. Ikusi eta bizi izan dugu. Hemen guztion artean egiten ditugu gauzak, eta tratua berdina da guztiendako. Askok entzuten da ostalaritzan ez dagoela profesionalik, jendea falta dela. Argi dagoena da jendea ongi zaindu behar dela; langile batek balio badu, ongi ordaindu behar zaio. Ez dago besterik. Soldata igoera horrek menuaren prezioan eragina izan behar badu, hala egingo dugu, gure jendea gustura eta ongi zainduta egoteko, eta euren bizitza kalitatea ona izateko. Guretako lehentasuneko da. Bestelako egoerak bizi izan ditugu, eta horregatik dugu horren argi. Ezinbestekoa da, zerbitzuan nabaritzen delako. Gure bezeroek hala nabarmentzen digute, gure etxean giro ona da-



Aaron Ortiz sukaldaria lanean. Kabon argi dute lortutako Michelin izarra mantendu nahia ez zaiela obsesio bilakatu behar. KABO

goela, langileen atentzioa oso ona dela eta gure etxean oso gustura egoten dela. Hori, beste faktore batzuen artean, langileak gustura daudelako da. Horregatik esa-

"EZ GENUEN IZARRA JASOTZEA ESPERO. EDONOLA ERE, GUK BERBERAK IZATEN JARRAITZEN DUGU"

ten dugu Kaboko esperientzia erabatekoa dela, prezioa menuarekin, tratua erekin eta giroarekin batera doalako.

Erreserbetan Michelin izarraren efektua nabaritu duzue?

Berehala nabaritu zen. Azaroaren 28an izarra jaso eta bi egunetara abendua eta ilbeltza osoa bete ziren. Eromena izan zen, eta da. Michelin izarre turismoa mugitzen dute, hori diote. Guk atzerriko bezeroen gorakada hori

oraindik ez dugu nabaritu, bezero gehienak estatukoak direlako, baina kontuan hartu behar da ere Iruñea ez dela Madril edo Bartzelona bezalako hiriburu

"GAUZAK MODU EZBERDINEAN EGITEN JARRAITU NAHI DUGU, HORI BAITA GURE ESENTZIA"

handia. Ildo honetan, Nafarroako gremio indartsuak eta ekitaldi handiak gehiago sustatu behar direla uste dut: kontzertu handiak, kirol ekitaldiak, gastronomiak... horrek jendetza erakartzen du, eta herrialdean dirua uzten du. Babes instituzional handiagoko falta da.

Izarra lortu eta berehala, Osasuna Magna Xotaren omenaldia jaso zenuen, abenduaren 9ko partidako ohorezko sarea egitea.

Gaztetan Xota B taldean jokatu nuen. Dani Saldiserekin ibili nintzen taldean. Bera Irurtzongo nire kuadrillakoa da. Lotura handia dut Xotarekin, kariño handia. Imanol Arregi bizilaguna izan da beti, nire osabak Xotaren partidak ikustera eramaten gintuen eta nik klubari lotuta jarraitzen dut; ahal dudanean ez dut partidetan hutsik egiten. Carmelo Villamarinek deitu zidaneko ohorezko sarea egingo nuela esateko, hunkitu nintzen. Keinu ederra iruditu zitzaidan. Ekitaldia oso polita izan zen. Gaztetan jokalaria nintzeneko oroitzapenak etorri zitzaizkidan burura, eta jendearen maitasun hori sentitzea zoragarria izan zen.

Madrid Fusion topaketetatik etorri berri zarete.

Lan talde guztia egon ginen, eta hor ere izarraren efektua nabaritu genuen, sukaldaritzan munduko ikasle eta jende askok eza-gutu gintuelako eta zorionak ematera eta argazkia eskatzera hurbildu zitzaizkigulako.

Halakoetan asko ikasten al da?

Bai, beti ikasten da zerbait, edo norbait ezagutzen duzu, produktu berriren bat ikasten duzu... Madrid Fusionen Nafarroako standa bota genuen faltan. David Yarnoz sukaldari nafarra Aragoiko Gobernuak ekitaldi batean parte hartzen ikusi genuen. Uste dut Nafarroak bere standa izan behar zuela, gastronomian aberatsak baikara.

Zeintzuk dira zuen helburuak?

Orain arteko bidean aurrera egitea eta eboluzionatzen jarraitzea, Nafarroa eta bertako jendea eta produktuak ordezkatuz. Gure lehengo ametsa jatetxe bat sortzea zen. Kabo sortu genuen, baina gure ametsak jarraitzen du. Gauzak modu ezberdinean egiten jarraitu nahi dugu, ezberdin izaten jarraitzeko, hori baita ezberdintzen diguna, gure esentzia. Jendea Kabora dator eta badaki gurea beste gauza bat dela, beste historia bat.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Hegoafrika: elkartasuna ordainetan

Hegoafrikan *apartheid* sistema kriminala ez zen berez hondoratu, herritar beltzek, oro har, (eta beste arrazatako gutxi batzuek) parekidetasun egoera lortze aldera, sekulako ahaleginak eta bi egin zituzten hamarkada gogorretan *establishment* supremazista birrintzeko. Umiliazio, jazarpen, lapurreta, erailketak ezin ahala kontatu izan ziren. Bestalde Angola, Mozambike eta Namibiako gerlak gatazka honen osagarri odoltsua izan zirela ez dugu ahazteko.

Nazioarteko komunitatearen jarrerak ere *apartheid*-a amiltzea eragin zuen, eta ondorioz Mandelak gidatzen zuen mugimenduak arraza guztiendako taxubide politiko bat ahalbidetu zuen.

Alta, herrialde boteretsu askotxoren jarrera denbora luzez *apartheid*-a babestea izan zen, horra hor Erresuma Batua, AEB edota Israel, besteak beste. NBE eta hainbat herrialderen ekinbideak Hegoafrika zigortu eta bakartzeko oso eraginkorrak izan ziren, baina hastapenean herrialde gutxi ekin zioten irmo jardunbide horri.

NAZIOARTEKO KOMUNITATEAREN JARRERAK ERE 'APARTEID'-A AMILTZEA ERAGIN ZUEN

Oraingoan Hegoafrikak, aitzindari izaki, Hagako auzitegira Israelen aurkako

salaketa ekarri du; halaber Bolivia, Indonesia, Eslovenia, Txile, baita anitz herrialde musulman tankera ezberdinetan Palestinarren alde egiten ari dira. Herrialde eskandinaviarrek, ordea, behiala herri zapalduen alde nabarmentzen zirenak isilik diraute, *o tempora o mores*, Ukrainako gerlaren beste alboko kalte bat, ala eskuin muturraren gorakada gaitza Artikopean?

Nazioarteko komunitateak Israel gauzatzen ari den sarraskia geldiaraziko badu, eragile ugariren konpromisoaren premia du, eta datozen hilabeteak erabakigarriak gertatuko dira. Paradoxikoki Hegoafrikan *apartheid* sistema 1948an martxan jarri zuten, eta hamarkada luzeetako borrokaren eta ekarpen ugariren laguntzaren ondorioz, gobernabide anker hura amaitu zen. Hegoafrikak ez du ahantzi historiaren zati hau, aspaldian jaso elkartasuna orain eskaintzen du berriz.

OBJEKTIBOTIK



S.D. ALSASUA / ALTSASU K.E.
@SDALSASUA

Bihotz bihotzez... MILA ESKER



ZUZENKETAK

Aurreko zenbakian Dorraoko Kontzejuen asmoen berri eman genuen 7. orrian. Jakinarazi genuen eguzki plakak jarri zirela herriko eraikinetan eta bertan sortzen zen argindarra herrian

kontsumituko zela eta sobera zegoena saldu egiten zela. Azken hori ez da horrela, eguzki plakak sortuko duten elektrizitate guztia Dorraon bertan kontsumituko baita.

Bestetik, 8. orrian, Aralarko erreskatearen berri ematerakoan, argazki oinean abizen bat gaizki jarri genuen. Argazkian, ezkerretik lehena, Julian Etxeberria urdindarra da.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maider Gabirondo Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

A close-up photograph of a hand pouring milk from a metal pitcher into a white ceramic cup. The cup contains a coffee beverage with intricate latte art. The background is blurred, showing a person's hand holding the cup.

0 km
SAKANAKO
GIDA

**KAFETXO BAT
BAT NAHI DUZU?**

<https://guaixe.eus/gida/>



Kamioiendako aparkalekua Urdiainen

Araudia egin du, baina hura behin betiko onartu ondoren, udaberrian, erabilgarri izanen da azpiegitura berria. Iturtxulo kalean euri asko egiten duenean sortzen diren arazoak konpontzeko lanak ere egiten ari da

URDIAIN

Sakanako Autobiako (A-10) irteera eta Magotteaux enpresaren artean kamioiendako aparkalekua egin du Urdiaingo Udalak. Lanak 24.000 euroko aurrekontua izan du, eta udalak bere poltsikotik pagatu du. Construcciones Santesteban enpresako langileak joan zen astean hasitako lanak honetan despeditu dituzte. Lurra jaso eta, momentuz, legarrezko zorua egin dute. Erabili ondoren, emaitza ikusi eta zorua aldatzea ez du baztertzeko udalak. Horrekin batera, hesia jarri dute langileek. David Oroz Alonso alkateak jakinarazi duenez, "partzela handiagoa bada ere, lau kamioiendako tokia du aparkalekuak. Urdiainen ez daude hainbeste kamioi, baina badaezpada handiagoa egin dugu".

Orozek gaineratu duenez, "aparkalekuaren araudia otsailaren 6ko udal bilkuran onartu genuen. Jendaurrean jarri, jendeak ekarpenak egin eta behin betiko onartuta egoteko udaberria izanen da. Araudia indarrean dagoenean hasiko dira kamioiak aparkalekua erabiltzen". Alkateak azaldu duenez, jabetu ziren kamioiak uzteko toki aproposik ez zegoela herrian, eta "araudi bat egin aurretik alternatiba bat eskaini beharra gurela iruditu zitzaiz-



Sakanako Autobidearen (A-10) ondoan egin du udalak kamioiendako aparkalekua.

gun". Aparkalekuko araudian udalak jaso du, besteak beste, azpiegitura zabaldu ondoren kamioiak han aparkatu beharko direla, hura erabiltzeko txartela atera beharko dutela garraiolariak edo kamioia eta gidaria Urdiainen erroldatuta egon beharko dutela. Aparkalekua zabaldu ondoren udalaren asmoa da garraiolariekin elkartzea.

Ura bideratzen

Urdiaingo herrigunea aldapan dagoenez, erauntsi handiak dandenean euri urak kaleetan behe-

ra egiten du. Ur asko Iturtxulo kalean pilatzen da eta hango estoldek gainezka egiten dute. Eraikuntza enpresako langileak ur horiek bideratzeko hodia jartzen ari dira Kamiozar kalean. Euri ur horiek Araniturriko errekarat bideratuko dituzte. "Toki Azpiegitura Planera aurkeztu genuen lan hori, baina Nafarroako Gobernutik lehentasunezkoa ez zela erantzun ziguten, beraz, udalak ordaindu du lana". Haren aurrekontua 17.000 eurokoa da. Bi lan horiek egitera Urdiaingo Udalak 41.000 euro bideratu ditu.

Altsasuarrek eta elkarteek ekarpenak egiteko aukera

Udalaren III. Berdintasun plana egiteko prozesuan herriari zabalduko lansaioa izanen da

ALTSASU

Udalak udaberriko despedituta nahiko luke diseinatzen ari den III. Altsasuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana. Plan horrek berdintasun politiken datozen urteetarako lan ildoak zehaztuko ditu, martxan jarri beharreko ekintzekin batera. Plana egiteko lau lansaio aurreikusi ditu udaleko Berdintasun Zerbitzuak. Aurreko astean mugimendu feministako kideekin egin zuten planaren kontrastea. Gainera, II. planaren balorazioan jabetu ziren pandemiagatik ahalduzko ildoak ez zela behar bezala garatu eta hori etorkizunean nola landu aztertu zuten. Herrerengun beste jatorri bat duten emakumezko altsasuarren iritzia, kezka eta proposamenak jaso zituzten.

Hurrengo lansaioa otsailaren 21ean izanen da, 18:00etan, Gure Etxean. Hartan altsasuar eta herriko elkarte guztiak daude gonbidatuta. Parte hartzeko hileren 15era arte dute izena emateko. Horretarako berdintasuna@altsasu.net e-postara idatzi behar da. "Planak ahalik eta kontsentsu zabalena edukitzeko", parte hartzeko gonbidapena egin du udalak. Azken lansaioa zinegotzietan izanen da.

Euskalgintzak dirulaguntzak eska ditzake Mank-en

Eskabideak martxoaren 31ra arte aurkeztu daitezke Mank-en edo erregistro elektronikoa

SAKANA

Ibarreko euskalgintzari eta euskara sustatzeko jardueri diruz laguntzeko deialdia egin du Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Mank-ek 5.000 euroko poltsa bideratu du horretarako. Deialdiak 2023ko azaroaren 1etik 2024ko lastailaren 31ra bitartean burutuko diren ekintzak hartuko ditu kontuan. Beti ere euskararen erabilera sustatzea helburu espezifiko eta nabarmena duten egitasmoak badira. Hala ere, deialditik kanpo geldituko dira Mank-en beste edozein esparrutan dirulaguntza jaso dezaketen egitasmoak, baita haur eta gazteei zuzendutako aisialdiko jarduerak ere.

Deialdian interesa duen erakundeak eskabidearekin batera, IFKaren fotokopia, jardueraren plangintza zehaztua, hari lotutako diru sarreraren eta gastuen gaineko aurrekontua eta beste erakundeek jardura bererako emandako dirulaguntzen inguruko aitortpena aurkeztu beharko du. Eskabideak Lakuntzako egoitzan edo egoitza elektronikoa aurkez daitezke. Deialdiaren berri sakana-mank.eus webgunean dago. Bestela, hona jo: euskara1@sakana-mank.eus edo 948 464840.

Ergoienak web orri berria du

Ergoienako Udalak web orri berria otsailarekin batera mustu du. Animsa enpresa publikoaren plataforma erabili du horretarako. Udalak egoitza elektronikoa ezartzeko erabakia hartu zuen irailean. Ergoendarrei zerbitzu publikoak gerturatu eta albisteak zabaltzeko modua emateaz aparte, ibarraren eta herrien berri jaso daiteke ergoiena.com-en.



Txooooo!

JUANLUZENA SAGARDOTEGIA

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

TX
TXARTEL

IKO FITXATEGIAK INPRIMATZEKO

Bidali zure fitxategiak webgunetik zuzenean

www.txartel.net

"Langileriak bere biziraupenerako behar du ongizate unibertsala"

TELMO ZULAIKA PEREZ EHKS-KO KIDEA

Euskal Herriko Kontseilu Sozialista alderdiak, proposamen politikoa eta dokumentazio ideologikoa abenduaren 16an aurkeztu zituen

Eneida C.M. / Alfredo A.I. SAKANA

Mugimendu sozialistak ibarrean Kontseilu Sozialista, Gazte Koordinadora Sozialista, Itaiia eta Ikasle Abertzaleak daude. Mugimendu berak eratu du EHKS. **Zergatik sortu duzue alderdia?** Erabakia hartu da ibilbideagatik, indar metaketagatik eta uneak exijitzen duelako. Gauden historia testuinguruan behar dugulako mugimendu sozialistaren erreferentia izanen den alderdia, bozeramailetza politikoa izanen duena. Guretako EHKS-k izan beharko luke langileriarendako tresna politiko bat. Antolakunde integrala izan beharko litzateke, belaunaldiartekoa; langileen hainbat subjektibitate eta sektore guztiak barnebiduko litzatekeen antolakunde bat izan beharko litzateke.

Hauteskundeak?

Oraingo ez gara aurkeztuko, ez dugu baztertzen. Baina erakunde horiek erreminta gisa erabili beharko genituzke instituzioen izaera kapitalista eta funtzioak azalarazteko. Bestetik, mekanismo gisa erabiliko genituzke proletarioaren kontra hartu daitezkeen neurri horiek guztiak seinatu eta neutralizatzeko. Azkenik, erakundeak erabili beharko lirateke instituzio horiek desmitifikatzeko, jendartean politikaren kontzepzioa instituzioen eremura mugatzen delako. Erakunde kapitalistak ez dira espazio neutrala eta, horregatik,



Telmo Zulaika Perez Etxarri Aranazko plazan.

guretako ez dira eraldaketa iraultzailerako tresna nagusiak. Inoiz erakundeetan bageunde, instituzioetako lana kanpoan dagoen indarraren menpe jarri beharko genuke, eta ez kontrakoa. Gaur egungoaren kontrakoa.

"GURETAKO EHKS-K IZAN BEHARKO LUKE LANGILERIARENDAKO TRESNA POLITIKO BAT"

Euskal langilearen alderdia?

Gaur egun alderdi batek berak ere ez dio bere programa politikoaren zentraltasuna proletalgoari ematen. Hori azpimarratu behar da. Langileria osoarendako zentraltasuna hartzen duen programa politiko bat daukagu. Alderdi profesionalek sistema kapitalista gainditzeko horizonterik ez badute, ezin dute ongizate unibertsal baterako oinarriak jartzen hasi. Langileriak bere biziraupenerako beharrezkoa du ongizate unibertsala. Gutxieneko printzipioa izan beharko luke. Izan ere, gaur egun langileria momentu zailean dago, zapaldua izaten jarraitzen ari da, eta abar.

Zer da zuendako premiazoena?

Lehenengo, estatuaren autoritarismo joeraren gorakada dago. Bestalde, ekonomia oldarraldi bortitza pairatzen ari gara gaur egun. Langileriak egunerokoan esparru guztietan pairatzen dituen aurrean EHKS-k tresna eraginkorrak sortu beharko litzuzke. Tresnak sortu ez ezik, premiazoa iruditzen zaigu kontzientzia sozialista hedatzen joatea, hau da: gertatzen denaren inguruko perspektiba garatzea, baina langile klasearen perspektiba batetik.

Nola egiten da hori?

Gaur egun gogoseak daude, gerrak, eraso sexistak... Langileriak horiekiko kontzientzia hartu beharko luke eta, nolabait, gainditzen saiatu. Horiek gainditu ahal izateko ezinbestekoa da sistema kapitalista gainditzea, eta estatu sozialistaren garapena edo eraikuntza egitea. Langilearen babes hori edukitzea langileriak berak prozesu horretan parte hartu beharko luke. Izan ere, kontzientzia bat sortzen baldin baduzu horrekiko, prozesuaren subjektu politiko edo subjektu aktibo bat bihurtuko zinateke. Ikusi behar dugu zergatik bizirauten duen sistema kapitalistak, zer oinarri dituen eta horiek nola gainditzen diren. Sistema kapitalista gainditzeko sortu beharreko estrategia sozialista berriak hori barne bildu beharko luke eta, horregatik, subjektu bilakatzen da langileria. Bestalde, klaseartekotasuna eta erreformismo proposamen politikoen zuzenean estatu kapitalistaren kudeaketa hobe bateranzko bidea hartzen dute. Horregatik, sufritzen ditugun hainbat zapalkuntza ez dituzte

gainditzen eta, ezinbestean, erreproduzitzen jarraitzen dira.

Antzeko alderdirik bada?

Begi onez ikusten dugu destakamendu komunistak sortzea Katalunian edo Espainian. Premisa batekin ondo ikusten ditugu: langileriak bere helburu politikoak lortu ahal izateko, ezinbestean, nazioartean antolatu behar du. Haiekin eta munduan sor daitezkeenekin harremanetan jartzeko prozesua irudikatu behar dugu.

Zein da zuen proposamen politikoa?

Zazpi puntu dauzka. Erreminta bat da kontzientzia sozialista hedatzeko, langileria pitteka antolatu eta borroka batzuk abiatzeko edo borrokatzen joateko. Lehenengo da: bizitzaren garestitzearen kontra, kalitatezko bizi baldintza unibertsalak. Gure ustez indarra batera artikulatuz eta sozialismoaren eraikuntza sortzen baldin badugu nolabait bizi baldintza unibertsalak lortuko ditugu, kalitatezkoak eta doakoak izan daitezkeenak, eta jende guztiak horretarako sarbidea izan dezaketena. Bigarrena: gerra inperialisten kontra. Gaur egun nazioartean gerra gehien sortzen ari da. Horietan gehien hiltzen dena proletalgoa da, horregatik NATO desegitea eskatzen dugu. Hirugarrenik, estatuaren erreforma autoritariorien aurka ez, faxismoari aurre egitea. Migratzaileen kontrako politikak egungo izaera, polizia-aren infiltrazioak...

Laugarrena ekologia krisiarekin lotuta dago: ekosistemen suntsiketaren aurrean, txikizioa gelditu. Bosgarrena, estatu zapalzaileen aurrean, autodeterminazioa euskal langileriarendako. Euskal Herria espainiar eta frantziar estatuek zapaltzen dute. Seigarrena da emakume langileen zapalkuntzaren kontra, emakume langileak lehen lerroan jartzea. Emakumezkoek jasaten dituzten zapalkuntza forma guztiei aurre egiteko indar errealek artikulatzea eta mekanismoak sortzea. Azkenik, estatu zapalzaileen kontra borroka egin dutenen askatasuna lortzeko, langile militante politikoendako aldarrikatzen dugu bai aitortza baita amnistia ere. Amnistia ulertuta sistema kapitalistak irauten duen bitartean, preso politikoak egongo direla. Hortaz, amnistia erreala lortzeko bermea izanen litzateke sozialismoaren eraikuntza.

Langileak kezkatuta dabilta autobus artean

Ez dute ilbeltzeko nomina osoa kobratu. Enpresa batzordeak deituta protesta bilkura egin zuten asteartean. Bestalde, langileen ordezkariak kezka azaldu diote Nafarroako Gobernuari Sunsundeguik duen martxarekin

ALTSASU

UGT, LAB, CCOO eta ELA sindikatuek osatzen dute Sunsundeguiko enpresa batzordea. Guztiek deituta, langileek "lan eta etorkizun" duina aldarrikatu zuten asteartean, gosari garaian. Horretarako, elkarretaratzea egin zuten enpresan bertan. Protesta horrekin salatu nahi izan zuten ilbeltzean 900 euro kobratu dituztela, "eta soldataren gaintzeko zatiarekin materiala erosi nahi dute, geldirik dauden autobusak bukatu ahal izateko".

Langileak zuzendaritzaren "kudeaketa txarrarekin" kexu dira. Haien artean haserrea handia da. Joan zen hamarkadako krisian zuzendaritzak langileei makina bat murrizketa ezarri zien, eta orain soldata osoa ez kobratzea, euri zaharraren gainean euria egitea bezala izan da: "haiek beraien buruari ez zieten murrizketarik jarri, antolatuta behar omen zutelako. Beti bezala, desantolatuta besterik ez dute egin". Volvoren proiektua iragarri ondoren, gaur Sunsundeguin lan egiten duten langile batzuek aurretik zuten lana utzi zuten etorkizuneko proiektua ikusi zutelako, eta orain jota omen daude opatu duten egoerarekin. Bestetik, enpresaren Sakanako hornitzaileak ere kobratu gabe omen daude, haietako batek enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea indarrean jarri du.

Enpresa batzordeak zuzendaritzari lau eskaera egin dizkio. Batetik, langileei jakinaraztea enpresaren finantza egoera zein den, eta nomina osorik zergatik ez den ordaindu azaltzea. Aldi berean, zuzendaritzari eskatu diote plantillari eta enpresa batzordeari jakinarazteko zein den berreskurapen plana. Bestetik, enpresa batzordeak soldata bere osotasunean ordaintzea exijitu du. Eta, azkenik, enpresa batzordeak nahi du berreskurapen



Langileek lantegian protesta egin zuten asteartean. UTZITAKOIA

MAILEGUARENA BIDERATU BITARTEAN GOBERNUAK HIRU ASTEZ "LASAI" EGOTEKO ESKATU DIE

planaren berehalako informazioa eta haren unean-uneko jarraipena izatea.

Nafarroako Gobernu

Langileriaren kexu eta ezin egon horren berri eman zion enpresa batzordeak Mikel Irujo Amezaga Industria eta Trantsizio Ekologikoko eta Enpresa Digitaleko kontseilariari. Harekin, Industriako zuzendari nagusiarekin eta Sodenako bi arduradunekin batzartu ziren asteazken goizean. Enpresa batzordeak aurretik zuten bilera eskatuta. Langileen ordezkariak kezkatuta daude enpresaren kudeaketarekin. Horregatik, haren kudeaketa eta kontuen gaineko fiskalizazioa eskatu zioten foru administratioari eta Sodenari. Ez dute nahikoa ikusten kanpoko auditore batek kontuak zuzen daudela esatearekin.

Irujo kontseilariak gogorarazi zenez, Nafarroako Parlamentuan Foru Lege bat onartu zuten abenduaren 21ean. Haren bidez Soden enpresa publikoak baimena jaso du Altsasuko enpresari lau milioi euro arteko mailegu bat emateko. Kontseilariak azaldu zuenez, mailegua bideratzen ari da eta, hori egin bitartean, langileen ordezkariak hiru astez "lasai" egoteko eskatu zien. Irujo berretsizien Volvoren proiektu ona dela, aurreikuspen onak dituen. Eta Volvok eta Sodenak zuzendaritzan erabateko konfiantza dutela. Azaldu zuenez, sinatutako akordioaren arabera enpresan zuzendaritza horrek jarraituko du, eta administratio kontseiluan Sodenako bi kide sartuko dira.

Sundsundeguiko enpresa batzordeak lantegiko zuzendaritzari bosgarren eskaera egin zion. Atzo, otsailak 8, 13:40an informazio batzarra egitea. Enpresa batzordeak soldata osorik kobratzea eskatu zuten. Bestalde, sindikatuek iritzi desberdinak dituzte. Eta zer pauso eman aztertzen ari dira. Erredakzioa ixterakoan ez genuen batzarrean jasotakoaren berririk.



Antolatzaileetako batzuk bilketa eginen den lokalaren alean. ARTXIBOA

Elkartasun bilketak atek zabaldu ditu

Sakana Harrera Haranak jasotakoa elkartasun azokan salgai jarriko du apirilaren 14an

ALTSASU

Garai batean Sociedad Deportiva taberna hartu zuen udal eraikinak, atzera ere, atek zabalduko ditu. Udalaren laguntzaz, atzera ere, Sakana Harrera Haranako kideak izanen dira atek zabalduko dituztenak. Aurrenekoz, gaur, otsailaren 9an, eginen dute. 11:00etatik 13:00etara han egonen dira altsasuarrek eta sakandarrek emandako objektuak jasotzen. Sakana Harrera Haranako kideek dei egin dute "etxean dituzuen, erabiltzen ez eta egoera onean dauden arropak, jostailuak, bitxiak, oinetakoak, maindireak, ontziak eta abar" emateko. Erkuden kaleko 8. zenbakian dagoen bilketa gunea ostiraleroko zabalduko dute, aipatutako ordutegian, apirilaren 5era arte.

Taldeko kideek jasotako materiala sailkatu eginen dute eta guztia apirilaren 14an eginen

den elkartasun azokan salgai jarriko dute. Sakana Harrera Haranak bilketarekin eta elkartasun azokarekin bi helburu bete nahi ditu. "Batetik, jasotakoari bigarren bizitza bat ematea. Eta, bestetik, ekonomia egoera zailean daudenei erraztasuna eskaini modu onean erosteko egoera onean dauden gauzak". Elkartasun azoka altsasuarrendako topagune bat da. Aurreko urteetan Altsasu institutuko ikasleak parte hartu dute. Eta errefuxiatuen lekukotzak entzun dira.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak ere laguntzen du ekimena. Bakarren batek ostiraletan materiala eraman ezin badu, harekin harremanetan jarri eta nola eman zehaztu dezake. Horretarako, 648 070 710 telefonora hots egin edo anitzartean@sakana-mank.euse posta helbidera idatzi behar da.



Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

PORTUKO



Iturmendiko plazan adierazpen askatasunaren eta atxilotuaren askatasunaren aldeko pankartak jarri zituzten.

Auzitegi Nazionalean deklaratu ondoren, aske

Iturmendiari bati sare sozialetan argitaratutako hainbat mezutan terrorismoa goratzea eta biktimak umiliatzea egotzi diote. Atxilotutakoa ia erabat inkomunikatuta egon zen. Senideek "eskubide urraketa ikaragarri" gisa definitu dute gertatutakoa

Alfredo Alvaro Igoa ITURMENDI

Espainiako Poliziako hiru agentek 63 urteko emakumezko iturmendiarrak atxilotu zuten asteartean, 13:00ak aldera. Espainiako Auzitegi Nazionaleko Instrukzio-ko 6 zenbakiko Epaitegi Zentra-

leko Joaquin Gadea epaileak agindu zuen hura atxilotzea. Beste pertsona bat ere atxilotu zuten. Biak ikerketapean daude, sare sozialetan argitaratutako hainbat mezutan terrorismoa goratzea eta biktimak umiliatzea

egotzita. Union del Pueblo Navararren salaketa baten ondorioz daude ikertuta, epaitegitik zabaldu denez, ustez ETaren aldeko hainbat mezu zabaldu zituztelako.

Bere konfiantzazko abokatua aldamenean zuela, iturmendiarrak epailearen aurrean ez deklaratzeko eskubideari heldu zion. Fiskaltzak ez zuen harendako inolako neurririk eskatu eta magistratuak iturmendiarrak aske utzi zuen asteazkeneko 14:00ak aldera. Iturmendiarrak kautelazko bi neurri bete beharko ditu: ohiko bizileku bat izendatu du eta hamabostean behin Iruñeko epaitegira joan beharko du.

Atxilotetaz

Iturmendiarrak herrian ohikoak ez diren autoak aparkatuta ikusi zituzten astearte goizean herrian. Haien barruan jendea zegoen, ezezagunak. Kalez jantzitako poliziak ziren. Atxilotetaren unean emakumezkoa etxean bakarrik zen. Haren alaba batek atxilotetaren berri poliziak egindako dei baten bidez izan zuen. Poliziak jakinarazi zion ez zuela amarekin harremanetan jartzeko inolako aukerarik. Alabak amaren etxera joan eta bazkaria

prestatuta eta telefono mugikorra lurrean opatu zuten. "Desagertu izan balitz bezala zen", azaldu du Unai Otermin Benito atxilotutakoaren senideak. Iruñeko polizia etxera hots egin zuten, han izanen zelakoan. "Ez zuten inolako informaziorik ematen. Ez zuten ez ukatzen ez onartzen".

Ondoren alabak Chinchilla kaleko polizia egoitzara joan ziren eta behin eta berriz galdetu zuten haien ama non zegoen. Ez zuten inolako informaziorik jaso, ezta han ote zegoen ere. Amak hartzen dituen botikak eraman zituzten. Poliziek haiek hartu zituzten, baina ez zieten amarekin egoteko aukerarik eman. Ate asko jo eta gero, guardian zegoen ofiziozko abokatu baten bidez jakin zuten ama Iruñeko polizia etxean zegoela, eta ondoren Madrilera eramane zutela, Espainiako Auzitegi Nazionalean deklaratzera. Amak berak egindako hamabost segundoko dei batek jakinarazi zion "ongi" zegoela, eta Madrilera bidean zela.

Madrilera astearteko 20:00ak aldera eraman zuten poliziek. Iturmendiarrak Espainiako Auzitegi Nazionaleko ziegetan lo egin zuen, "oso gutxi, zarata eta argia baitzeuden". Jasotako tratua "egokia" izan zen. "Hala ere, bere hildako senarraren, eta preso ohiaren inguruko komentarioak egin zizkioten", azaldu du Otermin. Atxiloaldiak iraun zuen bitartean "% 100ean ez, baina praktikoki, inkomunikatuta egon zen", gaztigatu du, "ezinezkoa izan zen inolako informaziorik jasotzea". Gauzak horrela, iturmendiarraren inguruko hainbat pertsonak Madrilera bidea hartu zuten.

Irakurketa

Emakumezkoaren bikotea ETA-rekin lotuta urtetan kartzelan preso egon zen, eta 2016an hil zen. "Hor mendekurako aukera dago", azaldu du Otermin. "Hori, nahiz eta lehenengo arrazoia ez izan, atxiloteta egiteko beste arrazoi bat izan da", gaineratu du. "Benetan surrealista da halako egoera, X sarean edo Facebooken jarritako iruzkinen batengatik", esan du. "Epaile batek gaitasuna izatea horrelako eskubide urraketa egiteko... Ez gara harritzen. Badakigu zer eskubide urraketa egon diren Euskal Herrian, eta kanpoan. Oso ohikoak dira eskubide urraketa horiek. Baina gertatzen direnean, nahi gabe ere, harritzen zara. Irrealia ematen du".

Gaineratu duenez, "nabarmena da estatuan autoritarismo-ranzko biraketa izaten ari dela, eta eskubide gero eta gutxiago gelditzen direla". Iritzi askatasuna mugatzen ari direla uste dute senideek. "Penalizatzen ari dira zuk zure iritzia ematea". Nabarmendu duenez, "ikaragarria, basatia, neurrigabekoa... Ez du erreala ematen. Horrelako kasuak ezin dira izan. Salatu behar dira. Eta eskubideak defendatu behar dira". Oterminen azpimarratu duenez, "eskubide urraketa ikaragarria izan da. Halakoak gainontzekoendako mezua dira: kontuz idazten duzuenarekin, kontuz ematen dituzuen iritziekin. Ultraeskuindarrek, faxistek, nahi duten guztia esateko aukera dute, baina babesgabe gaudenok, ez dugu iritzirik emateko aukerarik. Isilik egon behar dugu. Arrisku hori jarri dute mahai gainean haiek ere".

Atxiloteta dela eta, Iturmendiko frontoia bete egin zen asteazken arratsaldeko informazio batzarrean. Bestalde, emakumezkoak "jasandako atxiloteta, inkomunikazioa eta eskubide urraketa ikaragarria salatze"ko, Iturmendiko plazan kontzentrazioa egingen da gaur, ostirala, 19:00etan. Bilkurak *Errepresiorik ez! Adierazpen askatasuna defendatu!* leloa du.

**ASTEARTEKO
13:00ETAN ATXILOTU
ETA ASTEAZKENEKO
14:00ETAN ASKE
UTZI ZUTEN**

DUELA 25 URTE...



Ihotea berreskuratuta Irañetan

Artxabal euskara taldearen ekimenez Irañetan ihote ospakizunak berreskuratuta ziren. Horretarako, hainbat irintarren lekukotza jasotzen zuen 1973ko idatzi batean oinarritu ziren. Goizetik, haiketarik, giro ederra izan zen herrian. Herriko tabernan bazkaldu eta, arratsaldean, irintarrak mozoratu eta, Atxon Zarkoa gurdian zeramatela, kalejiran ibili ziren. Haren akaberan ihotetako pertsonaia erre eta txistorra jana izan zen guztiendako.

KINTOAK

LAKUNTZA

OTSAILAK 12 Astelehena

10:00 Kintoak eta kinto gazteak, baserritarrez jantzita, plazan elkartuko dira. Trikitilarien eta bonboaren laguntzaz kinto eskeari ekinen diote. Enpresetan eta herrian.

12:00 Gosaria, kinto zahar baten etxean. Ondoren, kinto eskea.

15:00 Bazkaria.

18:00-21:00 Kinto eskea.

21:00 Afaria.

24:00 Tolosara, parrandara.

OTSAILAK 13, asteartea

11:00 Gosaria, kinto zahar baten etxean. Ondoren kinto eskea.

15:00 Bazkaria. Ondoren, poteoa.

22:00 Afaria.

23:30 Altsasura, parrandara.

ARBIZU

OTSAILAK 9 Ostirala

22:00 Afaria, Olatzean.

23:30 Parranda, Argi Bidea elkartean.

OTSAILAK 10 Larunbata

Ihote ospakizunekin bat eginen dute kintoek.

OTSAILAK 11 Igandea

10:00 Kinto eskea etxez etxe, trikitilariak lagunduta eta bonboa joaz. Dirua ematen dutenei pastak eta moskatela eskainiko dizkiete.

15:00 Bazkaria, Baserrin.

Ondoren, poteoa.

21:30 Afaria, kiroldegian.

24:00 Tolosara, parrandara.

OTSAILAK 12 Astelehena

15:00 Bazkaria, Izarran.

Ondoren, poteoa.

21:30 Afaria, Juaniton.

24:00 Tolosara, parrandara.

OTSAILAK 13 Asteartea

17:00 Haurrendako jolasak, plazan.

17:45 Txokolate jana.

20:00 Aittun handiya eta amiñ txikiya, plazan. Ondoren txatarrak.

21:30 Herri afaria, Aldabide elkartean.

Kintoek antolatuta.

24:00 Altsasura, parrandara.



UTZITAKOA

LAKUNTZA Hamaboskote batek osatzen du aurtengo Lakuntzako kintada: Maider Miranda Martinez, Nerea Askarai Lanz, Amets Allam Catarain, Arhane Zubeldia Etxanobe, Bakarne Arregi Sainz, Leire Urtasun Ruiz, Bidane Ayucar Arcauz, Andrea Lacalle Olasagarre, Gorka Senar Rekalde, Ander Cocera Cercadillo, Elayne Valverde Felix, Oihan Escudero Ganboa, Unai Sanchez Iriarte, Aimar Apaolaza Gaztelu eta Nerea Mayo Razkin.



UTZITAKOA

ARBIZU Hamar gaztek osatzen dute aurtengo kinto segizioa: Maia Novoselskyy Jaka, Obats Mendinueta Larrion, Izaro Ducar Gerrickagoitia, Leire Goñi Garziandia, Ailetz Arretxe Carrasco, Iker Lizarraga Pelegrin, Paula Igoa Reparaz, Unax Gainzarain Berastegi, Leire Mendinueta Azpiroz eta Alain Rosado Onda.

KINTOAK

ETXARRI ARANATZ

OTSAILAK 12 Astelehena

21:30 Afaria, Iturri ederren.
23:30 Tolosara, parrandara.

OTSAILAK 13 Asteartea

10:00-14:00 Baserritarrez jantzita, kintoak ethez etheko eskea eginen dute, Eztanda txarangak lagunduta.

15:00 Bazkaria, Bordan.
18:00 Zozketa.

BAKAIKU

OTSAILAK 9 Ostirala

21:30 Afaria, Koxko tabernan.
24:00 Parranda, Iturmendin hango kintoekin.

OTSAILAK 10 Larunbata

08:30-13:00 Kintoen ethez etheko eskea. Baserritarrez jantzita egonen dira eta dirua ematen dutenei ardoa eta gazta eskainiko diete. Trikitilaria eta pandero jolea izanen dituzte lagun.

13:30 Bazkaltzera, sagardotegira.
35 bakaikuar doaz.
22:00 Parranda, Altsasun.

ITURMENDI

OTSAILAK 9 Ostirala

21:30 Afaria, Aritzaga elkartean.
Ondoren bertan eginen dute parranda.

OTSAILAK 10 Larunbata

11:00 Gosaria, Aritzaga elkartean.
11:30 Kinto eskea ethez ethe. Baserritarrez jantzita ibiliko dira, trikitilarien doinuez lagunduta eta bonboa joaz. Dirua ematen dietenei pastak eta moskatela eskainiko dizkiete. Lanak eginda, poteoa.

14:30 Bazkaria, Aritzaga elkartean.
19:30 Altsasura, hango kintoak dantzan ikustera.
22:00 Afaria Altsasun. Ondoren bertan parranda.

URDIAN

OTSAILAK 9 Ostirala

15:00 Bazkaria.
17:30 Ospakizuneko gastuei aurre egiteko axuri baten zozketarako txartelak salduko dituzte herrian barna. Euro batean eskuratu daitezke txartelak. Ondoren, poteoa.



UTZITAKOIA

ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranatzten aurten 22 kinto daude: Ekhi Balda Anso, Maia Jimenez Elizalde, Oier Ormazabal Ijorra, Nagore Erdozia Gonzalez de Pedroso, Maddi Beltza Beristain, Gorka Laplaza Velaz, Aitzara Maiz Ormazabal, Amaia Razkin Alves, Arrate Zabala Jaka, Joritz Arratibel Mendiola, Yahya El Bahhaoui Sour, Iñigo Urrestarazu Peña, Olaia Erdozia Urmeneta, Aritz Erasquin San Martin, Riham El baz El houndali, Uxue Larraza Senar, Itoitz Aldasoro Garrido, Belatz Nabarro Zabala, Adei Aldasoro Begiristain, Harriet Artieda Diez, Joel Goikoetxea Gartzandia eta Eñaut Oiarbide Erdozia.



ALTSASU Kinto festa astelehenean hasi zuten 55 gazteek. Kinto eskean ibili ziren astelehenean eta 22.735,91 euro eskuratu zituzten, errekorra.



UTZITAKOIA

URDIAIN Urdiainen aurtan hamahiru kinto daude: Ainhoa Astiz Lopez de Goikoetxea, Asier Astiz Lopez de Goikoetxea, Jon Aierbe Senar, Amets Ariztizabal Vicente, Iker Begiristain Andueza, Arane Zufiaurre Goikoetxea, Pablo Senosiain Galarza, Leire Urtasun Ruiz, Peru Urteaga Leñena, Amaiur Irigoien Garcia, Adur Irigoien Garcia, Beatriz Alice de Sousa Almeida eta Odei Otxoa-Errarte Flores. Baina egun hauetako ospakizunera kinto zaharrak eta gazteak batuko zaizkie, 50 gazteko kuadrilla ederra osatuz. Ospakizunak irauten duen egunetan kintoak baserriarrez jantzita ibiliko dira, eta festari doinua trikitilariak jarriko diote.

BAKAIKU**Hamahiruko segizioa**

Bakaikuko aurtengo kintoak bost dira: Ekhi Barandiaran Leiza, Adei Arza Zornoza, Eneko Lopez Lizarraga, Aritz Urrestarazu Izquierdo eta Oinatz Zelaia Gorrotxategi. Baina kinto segizioa hamahiru gazteak osatuko dute, kinto zahar eta gazteak elkartuko baitzaizkie. Kintoen egun handia larunbata izanen da. Aurretikegun beteak dituzte gazteek. Baina garileko festetan ere izanen dute zeregina, etxaju ondorengo zortziko haiek dantzatzeko baitute. Horretarako garagarrilean hasiko dira entseatzen.



Joan den urteko kintoa. ARTXIBOA

ZIORDIA**Bi kinto, baino gehiago ere**

Otsailaren 9tik 11ra bitartean, ostiraletik larunbatera, kinto ospakizunak izanen dira. Kinto segizioa 11 gazteak osatuko dute. Aurtan bi gazte ziordiar dira kintoak: Nahia Lumbreras Ruz eta Iratxe Lapuente Perez.

Baina haiek ez dira kinto ospakizuneko protagonista bakarrak kinto zaharrek eta kinto gazteek haiekin bat egiten baitute. Ospakizunak irauten duen hiru egunetan baserriarrez jantzita ibiliko dira.



Joan den urteko kintoak. ARTXIBOA

22:00 Afaria.
24:00 Parranda, antroan, frontoipeko lokalean.

OTSAILAK 10 Larunbata

12:00 Zortziko, duela 25 eta 50 urte kinto izandakoek dantzatzeko dute. Herriko kintaden eguna. Poteoa.

15:00 Bazkaria.
17:30 Baserrietara, eskatu eta, esker onez, dantza egingen dute. Bueltan, antroa.
18:30-21:30 Dantzaldia, Aitziber elkarteak.
22:00 Afaria.
24:00 Parranda, antroan.

OTSAILAK 11 Domeka

11:00 Gosaria, hartara txistulariak gonbidatuko dituzte.
12:00 Zortziko plazan. Ondoren, auzatea eskaini eta axuriaren zozketa egingen dute.
15:00 Bazkaria.
17:30 Etxez etxeko kinto eskea.
22:00 Afaria, eta parranda antroan.

ALTSASU**OTSAILAK 10 Larunbata**

Kintada guztiak bazkaltzera elkartuko dira larunbatean.

ZIORDIA**OTSAILAK 9 Ostirala**

15:00 Bazkaria, elkarteak.
Ondoren, poteoa.
22:00 Afaria, elkarteak. Segituan Altsasura, parrandara.

OTSAILAK 10 Larunbata

11:30 Kinto eskea etxez etxe. Dirua ematen dutenei zahatoa eskainiko diete. Errondan musika lagun izanen dute.
13:30 Zortziko, plazan. Ondoren, poteoa. Herriko kintada guztien eguna da.
15:00 Bazkaria, elkarteak.
Ondoren, poteoa.
22:00 Afaria, Altsasun. Ohi denez, kintoek aurreko kinto zaharrak gonbidatuko dituzte. Altsasun parranda egingen dute.

OTSAILAK 11 Domeka

15:00 Bazkaria, Urbasa tabernan.
Ondoren, poteoa.
22:00 Afaria, elkarteak.
24:00 Tolosara, parrandara.



IHOTEAK



IRURTZUN

OTSAILAK 9 Ostirala**HERRI INAUTERIAK**

Goizean, inauteriak Atakondoa ikastetxean.

18:30 Pertsonaia mitologikoak, joaldunak eta musika eskolako fanfarrearekin kalejira, plazatik. Ondoren, txistorra jana, Gernikako plazan.

OTSAILAK 10 Larunbata**HIRI INAUTERIAK**

13:00 Galtzagorri txarangarekin kalejira.

14:30 Inauteri herri bazkaria, Erga Larreak antolatuta, eskolako jantokian.

17:00 Galtzagorri txarangarekin kalejira.

18:00 Mozorro kontzentrazioa, plazan (eguraldi txarrarekin kiroldegian).

18:30 Mozorro desfilea eta musika, plazan (eguraldi txarrarekin kiroldegian).



IHABAR Ihabarko inauterietan moxorroek Aitezarko zigortu zuten, Landarraren eta besoan daraman Niniaren oihuen eta negarren artean. Kalejiraren amaieran, Aitezarko erre zuten.



UHARTE ARAKIL

OTSAILAK 10 Larunbata

14:30 Herri bazkaria, elkartearen. Izena ematea: herriko tabernetan; 20 euro elkarteko bazkideak, 22 euro bazkideak ez direnak.

18:30 Mozorro kalejira gurdi musikatuarekin.

Uharte Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta.

ARRUAZU

OTSAILAK 11 Igandea

12:00 Haurrendako jolasak, toldo azpian.

17:30 Mozorroren etxez etxeko kalejira. Euskal Herriko inauterietako pertsonaiez edo bakoitzak gustuko duen mozorroaz janzteko deia egin dute. 19:00 Etezez etxe jasotako jakiekin merendu afari goxo-goxoa, elkartearen.

LAKUNTZA

OTSAILAK 10 Larunbata

13:00-15:00 Eztanda txaranga.

13:00 Auzatea, plazan.

13:30 Mozorroren kalejira, txarangarekin.

15:00 Bazkari autogestionatua, kultur etxean. Izena ematea: udaletxean.

17:30-20:30 Jo Ta Txo taldearen musika, plazan.

20:30 Zezensuzkoa.

**OTSAILAK 13 Asteartea**

17:00 Txokolate jana eta musika, plazan.

19:00 Sardina jatea, plazan.

Arratsaldean zehar, Zataamarroak: Zataamarro begi gorri, urtien behin etorri!

ARBIZU

OTSAILAK 10 Larunbata

12:30 Aatea, plazan.

13:15 Mozorro desfilea.

15:00 Bazkaria, frontoian. Tiketak: helduak 25 euro eta haurrak 13 euro; Kiroldegian, Juaniton eta liburutegian.

17:30 DJ Faktoria, frontoian.

**OTSAILAK 11 Igandea**

10:00 Kintoak diru eske.

OTSAILAK 13 Asteartea

12:00 Kintoak eskean.

17:00 Haurrendako jolasak, plazan.

17:45 Txokolate jana.

18:00 Herriari buelta dantzarekin. Txatarrak zaku edo arpilera oihala,

jantzi zaharrak, ohegainekoak eta abar zigorra eskuan aterako dira.

20:00 Aittun Haundiya eta Amin Ttikia.

21:30 Kintoen afaria, Aldabiden.

UNANU

OTSAILAK 11 Igandea

16:35 Mamuxarro gazteak txuriz jantzita, aurpegian metalezko katolekin estalita, zigorra eskuetan eta gorputzean soinua ateratzen duten kaskabiloekin aterako dira, jendearen atzetik.



18:20 Auzatea, elizaren atean.

19:00 Puska biltzea, etxez etxe.

21:30 Puska biltzan jasotakoarekin afaria, Denok bat elkartearen.

OTSAILAK 13 Asteartea

16:35 Mamuxarroak eta muttuak ateratzen dira, jendearen atzetik.

18:20 Auzatea, elizaren atean.

19:00 Puska biltzea etxez etxe.

Ondoren, jasotakoarekin afaria Denok Bat elkartearen.

21:30 Puska biltzan jasotakoarekin afaria, Denok bat elkartearen.

DORRAO**OTSAILAK 13 Asteartea**

21:00 Herri afaria, Iturri-aldea elkartearen. Kontzejuak dorrobarrak gonbidatzen ditu.

LIZARRAGA**OTSAILAK 10 Larunbata**

13:00 Mozorrotuen topaketa eta kalejira.

14:30 Bazkaria, Azi Iturri elkartearen.

18:00 Mozorrotuen puska biltzea herrian barna.

22:00 Puska biltzean jasotakoarekin afaria, Azi Iturri elkartearen.

**ETXARRI ARANATZ****OTSAILAK 10 Larunbata**

ZALDUNIYOTE EDO HIRI IHOTEA

12:00 Jolasak haurrendako, kintoek antolatuta. Etxarri Kantuz, herrian zehar.

13:00 Auzatea, tabernariaren eskutik.

19:00 Mozorro txapelketa, EGAK antolatuta.

20:00-22:00 eta 23:00-02:00 DJ Txumasketarekin musika, plazan.

**OTSAILAK 13 Asteartea**

ASTEARTIYOTE EDO HERRI IHOTEA

09:30-14:00 Kalejira Eztanda txarangarekin, kintoek antolatuta.

12:00 Jira Bira haur diskoteka.

13:30 Txarangaren kontzertua, plazan.



IRANETA Ezkongabeen etxeetan ezpel adartxoak osatutako paxoak utzi zituzten, eta arratsaldean Atxun Zarkoa atera zen. Duela 25 urte Artxabal euskara taldeak ihoteak berreskuratu zituen.

ETXARRI ARANATZ
Txokolatearen erregea

Lantegia zabaldu du. Gainera bost urrezko txartel estaliko ditu plazan zalduniyote egunez

Etxarriarren artean bi astez makina bat zurrumuru egon ondoren, dagoeneko baieztatu daiteke: Willy Wonkak erosi du Ufesa zena eta bertan txokolategia zabaldu du. Herrian eragindako iskanbilaren jakitun, Wonkak herriko bost haurrei bere fabrika bisitatzeko aukera emanen die, "zorioneko horiei neronek erakutsiko dizkiet bertako sekretu eta magia guztiak". Aldi berean, Wonkak jakinarazi du herriko plazaren inguruko txoko edo izkinetan urrezko bost txartel estaliko dituela otsailaren 10ean, larunbatarekin. Haietako batek sari bat jasoko du, "imajina daitekeen

guaixe



Etxarriarrek ateratako azala. UTZITAKOA

guztia baino hobea izanen dena", Wonkaren esanetan. Gaineratu duenez, Etxarriko plazan agertuko da zalduniyotean, 13:30ean. Orduan emanen du bost tabletei buruzko informazio gehiago. Sarien berri mozorro txapelketan emanen du. Informazio gehiago Wonkaren sare sozialetan dago: Ig: @wonka_txokolategia edo Fb: Wonka Txokolategia.

17:30 Txokolate jana, plazako estalopean. Dantza erakustalditxo.

17:30-21:00 DJ Mikeltxi.

18:00 Kintoen errifaren zozketa.

19:00 Kixkimau Pinttoren segizioa kalez kale txistulariekin, EGAK antolatuta.

Ondoren, Kixkimau Pinttoren erretzea, plazako zelaian, EGAK

antolatuta, eta auzatea.

ITURMENDI**OTSAILAK 13 Asteartea**

HERRI INAUTERIAK

19:00 Txokolate jana.

19:30 Jitomoxorroren kalejira.

21:30 Afaria, Aizkozar elkartearen.

HURRENGO ORRIA JARRAITZEN DU »





URDIAIN

OTSAILAK 10 Larunbata

MANTAGUNA

16:30-20:00 Mozorroak kalean. Arpillerazko mantak edo zakuak soinean, aurpegia estalita eta zigorra eskuan aterako dira.

OTSAILAK 11 Igandea

17:00-20:00 Momoxarro txikiak.

Ondoren, txokolate jana, plazan.

Eskuetan zigorra eramanen dute, aurpegia estalita, farak bizkarrean eta haietako batzuek ardi narruak daramatzatela soinean edo ohe estalkiak eta besteren batzuek txano konikoa.

OTSAILAK 13 Asteartea

17:00-20:00 Momoxarro handiak.

Ondoren, kuadrillen sorgin afariak.



ALTSASU

OTSAILAK 11 Igandea

HAUR IHOTE EDO TXIKIA

16:30 Kalejira Altsasuko erraldoekin eta Altsasuko eta Etxarri Aranazko gaiteroekin, Intxostiapuntatik.

18:00-19:30 Txokolate jana eta mozorro dantza, Gaur Jaia taldearen eskutik. Bukaeran, zezensuzkoa, Foru plazan (eguraldi txarrarekin lortia zabalgunean).

OTSAILAK 13 Asteartea

HERRI IHOTEA

12:00 Puska biltza, Foru plazatik.

Ondoren, auzatea. Zangitu fanfarrearekin poteoa, Alde Zaharretik.

14:30 Herri bazkaria, Altsasuko



ZIORDIA Ziordiarrek kalejira egin zuten herrian zehar Zangitu fanfarreak lagunduta; ondoren plazaren inguruan zortzikoa dantzatu zuten eta, bukaeran, panpinari su eman zioten, herri ihoteei amaiera emanez. Azkenik, merienda banatu zuten.

Ikasle Abertzaleak-ek eta GKS-k antolatuta, Labaderon.

16:30 Inauteri txikiaren kontzentrazioa eta txokolate jana, Zumalakarregi plazan.

17:00 Inauteri txikiaren irteera, Eztanda Txaranga eta Altsasuko Gaiteroak lagunduta.

18:00 Inauteri txikia Foru plazara iristea eta zezensuzkoa.

18:30 Kalejira, Foru plazatik Zelandira. Torraden dastaketa eta dantzaldia, Foru plazan.

18:45 Odolaren errituala eta inauteriaren kontzentrazioa, Zelandin.

19:30 Inauteri segizioaren irteera.

Segizioa irekitzen inauterietako estandarte eta haren atzetik momotxorroak Eztanda txarangarekin, tartean juantranposoak Altsasuko gaiteroekin, eta atzetik momotxorroak; ondoren, maskaritat Burundako txistulariekin, Akerra eta sorginak, eta segizioa ixten maskarada orokorra Zangitu fanfarrearekin eta Xapiru Trikitixa Eskolako kideekin. Ibilbidea: Zelanditik atera eta Zelandi kalea, Isidoro Melero kalearen hasiera, Zelai, San Juan Gipuzkoa kaleraino, Bake kalea, lortia plaza Solana aldapa



behera eta Gaztetxeko aldapatik gora eta Santa Cruz kaletik Gartzia Ximenez kalera Foru plazan sartzeko. Momotxorroen dantza egiteko geldialdiak: Isidoro Melero kalea, Zelai kalea, San Juan kalea, Gipuzkoa kalea, Beti laten elkartearen aurrean, Gaztetxearen ondoan, Correos

bulegoaren aurrean, eta Foru plaza sartu aurretik.

20:00 Akelarrea Dantzarima Dantza Konpainiarekin, Zumalakarregi plazan.

21:00 Inauteri segizioaren etorrera, ezkil errepika, dantza eta mozorroa kentzea, Foru plazan.

ALTSASU

Inauterietako Batzordearen oharak

Aurreko urtetan mozorrotu gabeko jendea kalejiraren erdian sartu zela kontuan hartuta, maskaritat, juantranposoak, sorginak, akerra eta bestelako pertsonaiak ere inauterien parte direla jakinarazi du Altsasuko batzordeak; inauteria "errespeta-za" eskatu dute.

Odolaren erritualaren ondoren mozorrotu gabeko jendea Zelanditik atera beharko da. Zelai, Altzania eta Bakea kaleetan ezin da kotxerik aparkatu. Inauterietan parte hartzea "borondatezkoa" dela jakinarazi dute udalak eta Inauterietako Batzordeak, arretaz jokatzeko eta segurtasun tartea gordetzea gomendatzen dute.

Ez dira ez udalaren ez inauterietako batzordearen ardura izanzen pertsonengan edota materialetan sortutako kalte edota erredurak. Inauteriak berdintasunean ospatzeko deia luzatu dute ere.

OLAZTI**OTSAILAK 9 Ostirala****MARI ARROKA**

19:30 Mari Arrokarri ongi etorria, San Sebastian ermitan. San Migel plazaraino joanen dira; ibilbide berria eta sorpresaz betea.

Ondoren, pintxo potea gaztetxean. Maisuena gaztetxeak antolatuta.

OTSAILAK 10 Larunbata**HERRI IHOTEA**

13:00 Bermuta Valdesotoko gaitariak alaitua.

14:30 Herri bazkaria, frontoian.

Ondoren, bertan janzteko aukera.

18:30 Ihote segizioaren kalejira:

Zamar handiak, zamar txikiak, neskak, alkatea, apaiza, medikua, almiltea eta basozaina eta abar. Zamar handiek gorputza narruz estalita eramaten dute, buruan ipurukoa eta beheko aldean gona bat. Zamar txikiak sorbaldan narrua eramaten dute, eta aurpegia beltza eta estalita. Neskek ohegaineko bat eramaten dute, tolestuta bi kapa sortuz eta buruan



saskia koloretako zintekin, aurpegia estalita, eramaten dute. Haiekin batera gonbidatutako inauteriak: Asturiasko Sieroko Valdesoto herriko sidro pertsonaiak eta komediakoak izanen dira, futbol zelaitik.

Ibilbidean zehar gazta, salda eta ardo banatuko da.

20:30 Kintoek zortzikoa dantzatuko dute, La Cigarra txarangak lagunduta, San Miguel plazan.

23:00 Zazpizar Erromeria, gaztetxean.

23:30 Nead dj, Barandi tabernan.

* Oharrak: Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ez dira arduratuko ibilbidean egon daitezkeen ezbeharrez. Txarangari lurra ez botatzea eskatzen dute.

Balkoiak Apaintzeko II. Lehiaketa antolatu dute otsailaren 8tik 17ra. Epaileak otsailaren 10ean, 12:00etan, lehiaketan parte hartzen duten etxeak, balkoiak eta leihoak ikustera eta argazkia ateratzera joanen dira. Sariak: 150 etxe hoberenari, 100 euro balkoi hoberenari eta 50 euro leiho hoberenari.

OTSAILAK 13 Asteartea**HAUR IHOTEA**

17:00-18:30. Merienda eta festa Dj Kaktusekin ludotekan. Sarrera libre.



ALTSASU Altsasuko inauterietako erakusketa: ikastetxeetan eta Javi Galeanoren lanen erakusketa. Iortia kultur gunean. Otsailaren 16ra arte.

IHOTEAK ZUZENEAN

FESTAROREN ESKUTIK

WWW.GUAIXE.EUS

OTSAILAREN 13AN

20:55EAN



Joseba Ezkurdiak eta Xabi Tolosak txapelketa gorabeheratsua jokatu dute, baina ez dute itxaropenik galtzen. ASPE

"Altsasuko partidara bizirik iristea espero dugu, aukerekin"

JOSEBA EZKURDIA GALARRAGA PILOTARIA

PILOTA Binakako Txapelketako play-offetan sailkatu ahal izateko ligaxkako azken bi partidak irabazi beharrean daude Ezkurdia eta Tolosa. Aukerak dituzte, eta baikor dira

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Binakako Txapelketako ligaxka despeditzeko bi jardunaldiren faltan, oraindik asko dago erabakitzeke. Peio Etxeberría-Jose Javier Zabaletak eta Jokin Altuna-Julen Martijak play-off postuak ziurtatu dituzte, baina orain bigarren sailkatu eta finalerdietarako txartel zuzena lortzea dute jokoan. Joseba Ezkurdia eta Xabi Tolosa, ordea, play-off postuetan sartzeko borrokan daude. Irabazi beharreko bi final dituzte aurretik, baina baikor daude.

Binakako sailkapeneko hirugarren eta seigarren postuetan edo play-offetan sartzeko borrokan zaudete.

Peña II.aren eta Albisuren kontrako igandeko garaipenarekin, play-off postuen borroka betean sartu gara berriz. Zaila dugu,

"TXAPELKETAKO PARTIDA ASKOTAN EZ DIOGU PRESIOARI EUSTEN JAKIN. HORI IZAN DA GURE AKATSA"

baina behintzat aukera badugu, eta aukera gutxi horiei eusteko asmoz gaude.

Peña eta Albisu arerio zuzenak dira play-offetan sailkatzeko lehian; eurei irabazteak puntu bat baino gehiago balio zuen.

Zalantzarik gabe. Azkenean euren lortu ez zuten puntu guk gehitu genuen, eta puntu batera jarri ginen. Beraiekin *tantoaveragea* hobetzeko aukera hortxe-hortxe izan genuen; pena, ez lortzea, baina laugarren puntuaren lortu nahi genuena. Tolosak

oso partida ona egin zuen. Nik, agian, ez nuen partida ikusgarri horietako bat egin tantoak bukatzeko orduan, baina taktikoki oso ongi jokatu genuen biok.

Duela bi aste, Tolosan Artolaren eta Imazen kontra 11 eta 22 galdu zenuenean, jota ikusi zitzaizun. Oso beltz ikusten zenuen guztia, eta ia etsita zeunden. Astebete barru, Peña eta Albisu irabazita, baikor sumatzen zaizu.

Irabazteak gauzak hobeki ikusten laguntzen du. Une hartan, partida galdu berritan, oso zail ikusten nuen dena. Aurretik hiru partida genituen, eta goikoekin 2 puntuko aldea. Aste honetan puntu batera jarri gara, eta irabazteak eta aldea laburtzeak baikor egoteko aukera eman digu. **2022an ere bikotea osatu zenuen Xabi Tolosarekin. Orduan txapelketan ez zineten fin hasi, baina azken txanpan gora egin zenuen eta play-offetarako sailkatu zineten. Aurtun, aldiz, gorabeheratsu ibili zarete txapelketa guztian barna. Fisikoki ongi zaudete, zer da gertatzen dena?**

Zaila da azaltzen. Orain dela bi urte lehendabiziko itzuli txarra egin genuen, baina bigarren itzulian erregularagoak izan ginen. Aurtun, txapelketa guztian barna gorabeherak izan ditugu. Partida batzuetan oso ongi aritu gara, eta beste batzuetan, aldiz, behera egin eta ez dugu gure maila eman. Entrenatzen oso ongi ari gara, baina uste dut zenbait partidetan gure buruek "lan gehiegi" egin dutela; hau da, markagailuan azpitik jarri garenean sarritan ez dugu egoera horri buelta ematen eta presio horri eusten jakin. Hori izan da gure akatsik nabarmenena txapelketan. Arerioek lauzpabost tantoko abantaila lortu, eta partidatik atera izan gara; tantoak oso erraz oparitu dizkiegu aurkariei, eta tarte laburrean min handia egiten ziguten. Ez diogu gure buruari gogor egin, ez dugu jakin partidak gogortzen. Horregatik nago haserre. Dena den, ongi gaude, halakoak zuzentzeko bidean. Txapelketan jarraitzeko aukerak ditugu, eta igandean irabaziz gero, borrokan segituko

"AZKEN PARTIDA ALTSASUN JOKATUKO GENUELA JAKITEAN, POZTU NINTZEN; BURUNDAN GUSTURA"

dugu azken jardunaldira arte. Hori da helburua.

Laso eta Aranguren dituzue aurkari Tafallan. Beraiek ixten dute sailkapena (3 puntu). Bikote mindua da, apenas aukerak dituena, baina hala ere lana emango duena.

Beraiek irabaztera aterako dira, zalantzarik gabe, eta partida zaila dugu aurretik. Askotan ezer gutxi jokoan duzunean libreago eta lasaiago jokatzeko duzu, eta askoz ere arriskutsuagoa zara. Guk gurean kontzentratu beharra dugu. Gure lana ongi egin, egin beharrekoak kontrolatu, eta beste guztia ahaztu eta lasai hartu. Sentsazioak onak dira, ez dugu minik, eta horrek ere asko balio du.

Ligaxkako azken partida Altsasun jokatu duzue, otsailaren 16an, Jakaren eta Mariezkurrenaren kontra. Liderrak dira, finalerdietarako sailkatuta daude, eta ez dute irabazteko premiarik.

Profesionalak gara, eta dena ematera ateratzen gara; are gehiago enpresako gure bikoteei lagundu ahal diegunean. Mariezkurrena eta Jaka sekulako txapelketa ari dira egiten, bikote oso gogorra da. Ez da erraza izango. Oso gustura nago Altsasun jokatu dugulako. Partida horretara bizirik ailegatu nahi dugu, aukerekin iritsi. Errandoneak esan zidanean azkeneko partida Altsasun jokatu genuela, pozik hartu nuen berria. Burunda pilotalekuan gustura jokatzeko dut beti. Ea bizirik iritsi, etxe ondoan partida ona egin, eta play-offetarako sailkatzeko aukera dugun.

Binakakoa txapelketa gogorra da, luzea, azken unera arte emozioa duena.

Play-off sistema jarri zutenetik azkeneko jardunaldira arte dago emozioa, eta uste dut pilotariendako, jendarendako eta guztiendako ona dela. Aurtengo txapelketa oso polita ari da izaten; partida oso onak ikusi dira, baita kaxkarrago batzuek ere. Erregularra izatea garrantzitsua da, partida guztiak lehiatzea, eta hori lortzen dutenak goiko partean ibiltzen dira. Ez da gure kasua izan, baina oraindik ere bidean gaude.

Emozio handiko gizona zara. Irabazi beharreko bi final dituzue aurretik. Aurrekoa kontuan hartuta, hiru final.

Final gehiegi dira gauza onerako (kar-kar), baina dena ematen saiatuko gara.



Emakumezkoen Preferente Mailako Altsasu taldea, 2023/2024 denboraldiko aurkezpenean.

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasu Kirol Elkartek komunikabide bidez salatu zuen otsailaren 2an, aurreko ostiralean, Dantzalekun gertatutakoa. Emakumezkoen Preferente mailako Altsasu taldeko jokalariek entrenamenduaren ondoren dutxa hartzen ari ziren, aldagelako leihoetan bi pertsona mugikorrek irudiak hartzen ari zirela konturatu zirenean. Igerilekuetako itxituratik salto egin, eta autoz joan ziren ihesi.

Gertakari "larri eta onartezinen aurrean", salaketa jarri zuen Altsasu Kirol Elkartek. Foruzaingoa ari da jazotakoa ikertzen. Instalazioa zaintzeko kameran eta euren esku jarritako tresnen bidez egileak harrapatzeko itxaropena du klubak.

Beldurtuta eta kezkatuta

Emakumezkoen Preferente mailako kapitain Maalen Beraza Etxarrik otsailaren 2an aldageletan sortu zen iskanbila ez du ahazteko. "Taldekide pare bat bi mutil zeudela konturatu zirenean, oihuka hasi ziren. Beste batzuk korrika atera ziren kanpora, eta auto batean ihes egiten zutelako ikusi zuten. Nahasmen horretan, uste dut momentuan ez ginela gertatutako oso kontziente izan" azaldu du. Ez zituzten mutilak ezagutu. "Arratsaldeko zortzirak pasa ziren. Eurak igerilekuetako eremuan zeuden, ilunean. Gainera, beltzez jantzita zeuden. Nola ezagutuko genituen?".

Jasotako babes "bihotzez" eskertuta, egunerokora itzuli nahi dute jokalariek

FUTBOLA Altsasu taldeko jokalariek dutxan zeudela bi pertsona grabatzen ikusi izanak soka luzea ekarri du. Altsasu Kirol Elkartek salaketa jarri, eta Foruzaingoa jazotakoa ikertzen ari da. Gaur kontzentrazioa deitu du Mugimendu Feministak

Altsasuko jokalariek "oso argi" dute eraso goitik behera antolatuta zegoela, "eta horrek guztiak beldurra ematen digu. Egin behar zutena aurretik prestatuta zuten: gure entrenatzeko ordutegia, ihes egiteko nondik salto egin behar zuten, autoa zain izan... guztia pentsatuegia zegoen, eta horrek beldurra sortzen du". Edozein ez da gai igerilekuetako eremutik salto egiteko, eta aldageletako leihoetara igotzea ere kostako zitzaizela pentsatzekoa da. "Leihoak altu daude, eta bertara iristeko ziuurrenik bat bestearen gainean

"GUZTIA PENSATUEGIA ZEGOEN, ETA HORREK BELDURRA ETA KEZKA SORTZEN DU" MAALEN BERAZA

igoko zela. Bestalde, gidatzen zuenak gutxienez 18 urte izan behar zituela kontuan hartuta, egileak ez dira hain txikiak, ezta? hau ez da 14-15 urteko nerabeen gaiztakeria bat, argi dago".

Futbolariak kezkatuta daude. Ez dakite otsailaren 2an gertatutakoa lehen aldia izan zen, edo aurretik gehiagotan ibili ote diren euren irudiak hartu nahian. "Eta ez bakarrik guri. Altsasuk emakumezkoen beste bi futbol talde ditu. Txikienek 8-9 urte dituzte eta ertainek zenbait gehiago. Eurei ere irudiak hartu badizkiete, zer?". Irudi horiek noizbait argia ikusiko duten, beste kezka bat. "Erasoa antolatua dagoela argi dago, eta horregatik beldurra ematen digu zein helbururekin egin zuten. Ez dakigu irudi horiek euren artean ikusteko aterako zituzten, edo sare sozialetan zabaltzeko".

Altsasu Kirol Elkartea, bat

Altsasu kirol Elkartek hasieratik ikusi zuen jazotakoa oso larria zela eta salaketa jarri beharra zegoela. "Kluba txikia da, eta harreman ona dugu. Guztiok egin dugu bat". Altsasuko Udalak "irmotasun osoz" gaitzetsi zuen "sexu-eraso larri hau", eta Sakanako I. Lurralde Protokoloan jasotakoa beteaz, baliabide guztiak jarri ditu emakumeen eskura. Udala Dantzalekuko instalazioen jabe denez, neurriak iragarri ditu, besteak beste kristaletan biniloak jartzea, kanpotik barrukoa ez ikusteko.

"OSO ESKERTUTA GAUDE. ORAIN NORMALTASUNERA ITZULI NAHI DUGU" MAALEN BERAZA

Kontzentrazioa, gaur

Altsasuko Mugimendu Feministak ere "irmoki" salatu du Altsasuko eraso sexista. Gaur, ostirala, otsailak 9, elkarretaratzeari deitu du Altsasuko udaletxe aurrean, 17:30ean, *Erasorik ez!* lelopean. Altsasuko Udalak eta eragile politikoek bat egin dute deialdiarekin.

Elkartasun uholdea

Altsasu Kirol Elkartek komunikatua zabaldu bezain pronto elkartasun uholdea jaso zuten Altsasuko futbolariak. Futbol mundutik, Nafarroako Futbol Federazioa buru, berehala etorri ziren gaitzespena eta babes. Altsasu Kirol Elkartek "bihotzez" eskertu ditu jasotako ehunka babes mezuak, euren sare sozialetan argitaratuz. "Toki guztietatik iritsi dira, zenbaezinak dira. Oso eskertuta gaude. Guztiok norabide berean emakumeen eskubideak defendatzea oso positiboa da".

Gertatutakoak oihartzun handia izan du komunikabideetan eta soka luzea ekarri du telebista, irrati, egunkari eta webguneetan. Makina bat elkarrizketa eman behar izan dituzte egunotan Maalen Berazak, Alfonso Castellano entrenatzaileak, Jesus Sayas presidentek eta jokalariek. "Futbolak duen pisua erakusten du horrek, onerako edo txarrerako. Hau institutu batean gertatuko balitz, agian ez luke horrenbesteko erantzunik izango".

Bestalde, Altsasuko kintok astartean *Eraso guztien aurrean, kintok zuekin!* pankarta atera zuten. "Gurekin hitz egin zuten, zerbait egin nahi zutelako, eta taldeko kamiseta utzi genien. Oso polita izan zen".

Larunbateko partida

Orain, euren egunerokotasunean zentratu nahi dute Altsasuko jokalariek, Emakumezkoen Preferente Mailako ligan. Hasieran kostatu egin zitzaizkien, baina azkeneko hiru jardunalditan ongi ibili dira, irabaztetik datoz. "Dantzalekuko belar artifiziala aldatu zutenetik hobeki gabilta. Zortea eman digu" dio, irribarrez, Berazak. Bihar, larunbata, 11:30ean Universidad de Navarra hartuko dute Dantzalekun. "Partida borrokatua izango da, baina azken partidako maila eman nahi dugu, eta punturen bat etxean geratzea espero dugu".

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 9

ALTSASU Elkarretaratzea.

Eratorik ez! Altsasuko emakumezkoen futbol taldeko jokalariek jasandako erasoaren aurrean Altsasuko Mugimendu Feministak deitutako elkarretaratzea. **17:30ean, udaletxe parean.**

ALTSASU Hitzaldia.

Reyes Berruezoren *La Segunda República y la creación de las Bibliotecas. De las realizaciones a la posterior represión*, María Angeles Goicoarekin, Enrique Goico Altsasuko alabarekin, Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrenaren barruan. Gaztelaniaz. **18:00etan, lortia kultur gunearen areto txikian.**

ALTSASU Gazte agenda.

Berdintasunean gozatu: kintoen ospakizunetan emakumearen

presentzia sustatzeko egin den ibilbidearen inguruko ekimena. **18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

URDIAN Tailerra.

Biak Bat elkartearen Irakurkide txakurrekin irakurtzeko tailerra. **18:30ean, liburutegian.**

ITURMENDI Elkarretaratzea.

Iturmendiarraren atxiloteta salatzeo Errepresiorik ez! Adierazpen askatasuna defendatu! elkarretaratzea. **19:00etan, plazan.**

LARUNBATA 10

ALTSASU Txirrindula irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Lizarrusti, 46 km-ko ibilbidea. **09:00etan, Zumalakarregi plazan.**

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

La tierra prometida gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Igandea 11: 19:30
Astelehena 12: 19:00
El último soldado gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 15: 19:00

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota elkartearen Nafar Kirol Jokoen partidak: Erauskin – Beltza / Arraras – Belzunce; Aldasoro – Baqueriza / Beraza – Goñi; Campos – Garmendia / Guerra – Iribarren; Jaka – Marroyo / U. Goñi – N. Saralegi; Aldaz – Loiharte / Jimenez – Urbe. **10:00etan, Euskalerriari pilotalekuan.**



ALTSASU Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrena. Ospatu gurekin! Dokumentu, objektu eta liburuen erakusketa. Otsailaren 29ra. Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 20:00etara. **Liburutegian.**

IGANDEA 11

IRAÑETA Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleak taldearen mendi irteera: Irañeta – Ata – Oderitz, 14,56 km-ko ibilbidea, 652 metro aldapa gora eta 353 metro aldapa behera. Bazkaria: Oderizko Juanluzenea sagardotegia. **09:00etan, plazan.**

ALTSASU Txirrindula irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Baiza, 45 km-ko ibilbidea. **09:00etan, Zumalakarregi plazan.**

LAKUNTZA Ipuin kontalaria eta taloak.

Talo kontuak ekimena: ipuina eta talo tailerra eta dastaketa, Andra Mari Ikastolak antolatuta Ikastolak herriari programaren barruan. **12:00etan, plazan.**

ASTELEHENA 12

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. **12:00etan, Zumalakarregi plazan.**

ASTEAZKENA 14

ALTSASU Tailerra.

Haurrendako tailerra Manolita Thunders artistaren eskutik, Altsasuko herri liburutegiaren 90. urteurrenaren barruan. Elebiduna.

17:30etik 19:30era, lortia kultur guneko erabilera anitzeko aretoan.

OSTIRALA 16

ALTSASU Haurrendako ikuskizuna.

Txiki: gauza handiak lortzen dituzte pertsona txikien istorioa Adriana Olmedoren haurrendako ikuskizuna: Mayak konfiantza galdu du bere buruarengan. Uste du ez dela besteak bezain indartsua eta txikia sentitzen da. Indarra hartzeko eta ekiteko garaia da. Maya txikia izan arren boteretsua dela frogatzeko garaia da. Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrenaren barruan. Euskaraz. Sarrerak: 4 euro. **17:00etan, lortia kultur gunearen areto handian.**

ALTSASU Pilota jaialdia.

Binakako Pilota Txapelketa: Ezkurdia – Tolosa / Jaka – Mariezkurrena; Binakako B Serieko edo promesen txapelketaren hamalagarren partida: Zubizarreta III – Ugartermendia / Exposito – Gaskue. Aspek eta Baikok antolatuta, Altsasuko Udalak lagunduta. **22:15ean, Burunda frontoian.**

Eta ni ez nduzue zorionduko?

948 564 275
ZORION@GUAIXE.EUS

Er^viti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



Ez bota etxea leihotik!

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



M. Jesus Goñi Goldarazena



Agur gure ama maitia

Zure familia

ESKELA



M. Jesus Goñi Goldarazena

Eskerrik asko hizketan eman ditugun
une onengatik, irakatsi didazun guztiagatik,
batez ere euskara maitatzen.M.M
Altsasu

IRAGARKI SAILKATUAK

IRAKASKUNTZA

KLASEAK EMAN

LH ikasleendako klase partikularrak: Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

GALDUTAKOAK/OPATUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Aurreko asteburuan Altsasuko plazan txano arrosa marradun bat topatuta: Jaso nahi duenak 634 437 155 telefonora dei dezala.

IKASTAROA

Olaztin jaiotzak egiten ikasteko hastapen ikastaroa: 16 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroa Sakanako Jaiotzazaleen Elkarteak antolatuta. Izena emateko deitu 696 920 512 edo 606 227 612 telefonora otsailaren 16a baino lehen.

LEHIAKETA

Olaztiko Inauteriko II. Balkoi Apainketa Lehiaketan eta VIII. Mozorro Lehiaketan izen emateak zabalik: Balkoi apainketa lehiaketan

parte hartzeko otsailaren 8a baino lehen udaletxera gerturatu edo olaztikoihoteak@gmail.com posta elektronikora idatzi izen abizenak, telefono zenbakia eta helbide osoa emanda. Mozorro lehiaketan 14 urtetik gorako kuadrillek, taldeek edo banakakoek parte har dezakete. Horretarako 699 635 187 telefonoaren Whatsapp mezua idatzi behar da otsailaren 15a baino lehen. Bi lehiaketan informazio gehiago eta oinarriak www.olazti.eus webgunean daude.

OHARRAK

Aita Mariren 2024ko lehen erreskate misioa finantzatzeko 'crowdfunding' kanpaina martxan: Itsas Salbamendu Humanitarioak *crowdfunding* kanpaina hasi duela jakinarazi du Goteo plataformaren bitartez eta Fiare Banca Eticarekin lankidetzan. Informazio gehiago www.smh.eus web orrian. Parte hartzeko sartu ondoko link-ean: <https://www.goteo.org/project/barco-de-salvamento-aita-mari>.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilgu-

neak Whatsapp aplikazio-ko zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezua bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi dudula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulu jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

iragarki@guaixe.euswww.iragarkilaburak.eus

JARRI ZURE
IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUSWWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 €
prezio hauek BEZA barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

JAIOTZAK

- **Ametz Amores Soriano**, otsailaren 1ean Altsasun
- **Arane Mendinueta Martiarena**, ilbeltzaren 23an Arbuzun

HERIOTZAK

- **Maria Jesus Goñi Goldarazena**, otsailaren 6ean Altsasun
- **Enri Romeral Escobar**, otsailaren 6ean Bakaikun
- **Maria Guadalupe Isabel Echarri Larumbe**, otsailaren 2an Lakuntzan
- **Maria Angeles Francisca Burillo Lanz**, otsailaren 2an Lakuntzan
- **Miguel Betelu Aldaz**, otsailaren 2an Uharteko Arakilen
- **Trinidad Bergarechea Murgialdai**, otsailaren 4an Olaztin
- **Teresa Olló Olangua**, otsailaren 3an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN
DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Sakandarrak Bertsoaroan

Otsailaren 8an hasi zen Iruñeko bertsoari eskainitako programa, eta martxoaren 1era arte iraunen du; Eneko Lazkozek atzoko bertso jaialdian parte hartu zuen, eta Ekain Alegre, Idoia Granizo eta Saats Karasatorre ere ekimenetan izanen dira

SAKANA

Bertso Jaialdiarekin hasiera eman zioten atzo, otsailak 8, 2024ko Bertsoaroari, Iruñeko Nafarroako Antzerki Eskolan. Bertsoaren inguruko Iruñeko programak martxoaren 1era arte iraunen du, eta, besteak beste, bertso saioak, tailerrak eta bertso afaria izanen dira. Lau bertsolari sakandarrek parte hartuko dute Bertsoaroan: Eneko Lazkoz, Ekain Alegre, Idoia Granizo eta Saats Karasatorre.

Bertsoaroari hasiera eman zion Bertso Jaialdian, Eneko Lazkoz etxarriarra, Amets Arzallus, Ekhiñe Zapiain, Josu Sanjurjo, Nerea Ibarzabal eta Saioa Alkai-



Eneko Lazkoz bertsolariak arxiboko irudi batean. ARTXIBOA

za bertsolariak izan ziren ohol-tzan; gai jartzailea Alaitz Rekon-do izan zen.

Otsailaren 14an, asteazkena, 19:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan, *AMARAUN. Bertsoa, musika eta dantza, amatasunaren inguruan* saioa izanen da Oihana Iguaran bertsolariaren eta Amaur Luluaga dantzariaren eskutik. Sarrerak Nafarroako Antzerki Eskolaren webgunean eros daitezke, bost eurotan, eta 14 urtetik beherakoek doan.

Bertsoaroak haurrendako bertso tailer batekin jarraituko du: Bertso jasa, bat-bateko jolasa. Otsailaren 17an, larunbata, 11:00etan, izanen da Sanduzelako Civivoxean. Ekain Alegre eta Idoia Granizo bertsolari altsuarrek gidatutako tailerra, 8 eta 12 urte bitarteko haurrendako bideratuta dago eta aurretik izena ematea beharrezkoa da otsailaren 15era arte *nafarroa.sustapena@bertsozale.eus* helbidetan edota 948143747 telefonoan.

Saats Karasatorre bertsolari etxarriarrak otsailaren 22an, osteguna, programaren barruan antolatutako Bertso Jaialdian parte hartuko du. Harekin bate-

ra Andoni Egaña, Ane Zuazubiskar, Joanes Illarregi, Jone Uria eta Xabat Illarregi izanen dira ohol-tzan, eta Ainhoa Larretxea gai jartzaile lanetan ariko da. Jaialdia Nafarroako Antzerki Eskolan izanen da, 19:00etan, eta sarrerak bost eurotan eros daitezke, 14 urte beherakoek doan.

Otsailaren 23an, ostirala, 19:00etan, Gaztelu Plazako LABAN Gazteen bertso saioa izanen da, Eki Mateorena, Kattin Madariaga, Janire Arrizabalaga, Jon Mendiluze, June Aiestaran eta Sabin Abarrategi bertsolariarekin, eta Ainhoa Larretxea gai jartzailearekin. Sarrera doakoa da.

Programa ixten otsailaren 28an, asteazkena, 19:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan Miren Amuriza, Sustrai Colina eta Unai Iturriaga bertsolarien bertso saio espekulatiboa. Etorkizuna bertsoaren pentsatzen izanen da; Maite Berriozabal izanen da gai jartzailea. Bertsoaroarekin amaitzeko Bertso Afaria izanen da martxoaren 1ean, ostirala, 21:00etan, Geltokin, Julio Soto, Maialen Lujanbio eta Sari Robles bertsolariarekin, gai jartzailea Ander Aranburu izanen dela.



Valentino

Valentino Clemente Ludovico Garavani izenarekin batailatua, 1932an jaio zen Vogheran, Lombardia, Italian. Eskolan zegoela jada modaz interesatzen hasi zen, izeba Rosaren eta Ernestina Salvadeo bertako diseinatzailearen ikasle zenean. 17 urte betetzean Parisera joan zen aita eta amaren laguntzarekin, bere afizioarekin jarraitzeko asmoz.

Argiaren hirian zegoela, Jean Dasse eta Guy Laroche atelietan lan egin ondoren, Italiara itzuli zen, baina oraingoan Erromara, eta Giancarlo Giammetti bazkidearekin bere marka sortu zuen. 1960an hasi zen markaren historia, Erroman bere lehen moda aretoa ireki zuenean. Hasieratik markak bere dotorezia eta estilo sofistikatua izan ditu ezaugarri.

Bere diseinu fin eta glamourosoak berehala erakarri zuen goi mailako gizartearen eta mundu osoko ospetsuen arreta, bere lerro garbiengatik, ebakidura akatsgabeengatik eta luxuzko xehetasunengatik. Luxuaren sinonimo bihurtu zen.

1970eko hamarkadan bere izena nazioartera zabaldu zen. Londresen, Parisen eta Nueva Yorken denda ireki zuen. Liz Taylorrek askotan jantzi zituen bere lanak.

Janzkera ultra femeninoak, xehetasunez jositako sorkuntzak, begiztak, lumak, organza, plisatuak eta drapeatuak edo bolanteak dira Valentinoren sorkuntza definitzen duten ezaugarrietako batzuk. Zineman eta bere familiako emakumeengan inspiratuta zeuden, amaren dotoreziak eta bere familiako emakumezkoek ematen zioten balioa prestaketaren erritualei.

Zodiakoaren zeinuen zale porrokatua naizenez, zeinuek gure izaeraren ehuneko txikia izan arren, definitzen



gaituztela pentsatzen dut. Bera Tauro denez, aisialdiaz asko gozatzen dute eta lanean oso zuzenak dira, hori bere lanetan islatzen da.

Ondo baino hobeto jakin du garaietara egokitzen. 60ko hamarkadatik hasi eta gaur egunera arte ospetsu handiek eraman dituzte bere jantziak. Z belaunaldiko pertsonaia asko izan dira bere sorkuntzak alfonbra gorrian erakutsi dituztenak, sormen askatasuna eta inklusioa oinarri hartuta. "Luxuzko sinadura batek inklusioa izan behar du", bere eremuan geratuz gero, bere garrantzia moda munduan galtzen joan da.

Laida Aldaz artista etxarriarrak Leonardo beka jaso du

'In Perspective/Heritage' dantza, arkitektura eta musika uztartzen dituen proiektuagatik jaso du errekonozimendua

ETXARRI ARANATZ

Laida Aldaz Arrieta etxarriarrak BBVA Fundazioak banatzen dituen Leonardo Beka jaso du. Beka honen bitartez 35 eta 40 urte bitarteko sortzaileek haien proiektuak aurrera eraman dezakete. Artista sakandarrak *In Perspective/Heritage* diziplina anitzetako proiektuagatik jaso du sustapen laguntza.

Aldazen proiektuak dantza, arkitektura eta musika uztartzen ditu, eta eszenikoak ez diren espazioak arte eszenikoak egiteko espazioak bihurtzen ditu, atmosfera zinematografikoa bihurtuz. Publikoa ikuskizuna egiten ari den espaziotik mugitzen da, eta dantza eszena desberdin ikusteko aukera ditu.

Bekaren bidez *In Perspective/Heritage* ikuskizuna lau tokitan ikusi ahalko da: Bilboko bi espaziotan eta Madrilgo beste

bitan. Aurretik ikuskizuna Iruñeko Kondestable Jauregian, Donostiako Euskadiko Arkitektura Institutuan, Bilboko Guggenheim museoan, Iruñeko Katedralean, Italiako Lucacako Villa Guinigi Museoan, Oteiza Museoan eta Madrilgo Kultura Kontenporaneoko Condeduque kultur etxean ikusi ahal izan da.

Dantza eta zinema

Aldaz diziplina anitzetako artista da, eta duela zortzi urte Zinetika Festival sortu zuen, dantza eta ikus-entzunezkoak elkartuz. 2023ko amaieran, azaroaren 17tik abenduaren 14ra, izan zen zortzigarren edizioa lau egoitzatan: Iruñea, Donostia, Bilbo eta Maynennen. Sariketara aurkeztutako filmak ikustea ez ezik, tailerrak eta hitzaldiak izan ziren zinema eta dantza jaialdian.

Idazteko beharrak

Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrenaren harira Karmele Jaio idazlearen 'Fikzioaren egia' idazketa prozesuaren inguruko hitzaldia izan zen Iortia kultur gunean. Idaztea "deskubritzea" dela esan zuen idazleak; irudi bat deskribatzen hasten da

Eneida C. M. eta E. R. B. ALTSASU

"Zorionak liburutegiari. Beti da poztekoa edozein tokitan liburutegi bat izatea, eta hainbeste urtez gainera". Karmele Jaio idazleak Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrenaren harira hitzaldia eman zuen otsailaren 2an, aurreko ostiralean, Iortia kultur gunean. Amaia Amilibia izan zen solasaldiaren gidaria. *Amaren eskuak*, *Musika airean*, *Aitaren etxean* eta berriki *Maitasun kapitala* nobelak eta zenbait ipuin eta poesia liburu bat kaleratu ditu Jaiok, eta Altsasuko hitzaldian "fikzioaren egiei" buruz hitz egin zuen, "izan zitezkeen sorkuntzaren prozesua, baina egia aipatzea interesgarria iruditzen zitzaidan: fikzioarekin batera egia dago, fikzioa idazten dugunean egia dago; gure nahia da asmakizunaren bitartez egia azaleratzea".

Idazleak idazketa prozesuan buruan izaten dituen "kezkak" azaleratu zituen, idazten ari den bitartean "inportanteak" diren gauzak. Azaldu zuenez, berarendako liburu bat bukatzen duteenean idazleek "zer egin duzun ere ez dakizu". Sorkuntza prozesuak alde arrazionala eta irrazionala dituela gaineratu zuen: "Zuk kontrolatzen duzuna, burmuineko eskuineko alde arrazionalarekin daude idazle bezala dituzun erremintak, kuxa horretatik ateratzen dituzunak, ikasi duzun guztia, irakurri duzun guztia". Beste alde batean, "zure barnean zenituela ez zenekien hainbat gauza, idatzi, kezka" daude, "eta bat-batean sorkuntza prozesu horretan agertzen direnak eta lan hori sortzen dutenak".

"Nola heldu naiz hona?". Idazleak kontrolatzen ez dituen gauzak dituela esan zuen, "horre-

gatik diot liburu bat ateratzen dugunean eta galdetzen digutenean zeri buruzkoa den esatea zaila egiten zaigula". Idazlea hoberen adierazten duena liburua da: "Liburuari buruzko azalpenak kontatzea baino, liburuak berak hitz egiten du".

Deskubritzen

Zergatik edo zertarako idatzi idazleei askotan egiten zaien galdera da: "Erantzuna ez da erraza; erantzun asko egon daitezke". Munduaren zoriak idazten duela da Jaiok eman duen erantzunetako bat: "Mundua zoriak gidatzen duenaren sentsazioa dugu, eta badago mundu hori ordenatzeko saiakera bat. Mundua ulertzeko saiakera bat". Bizitzari ordena bat jartzeko modu bat da idaztea. Idazketa prozesuan ere "arrozkeria sentimendu" bat dagoela esan zuen idazleak: "Eduki izan dut horrelako sentsazio bat ez egokitzearena; inguruan gertatzen den horretara ez zarela egokitzen, ez duzula ulertzen, eta nik uste hortik sortzen dela idazle askoren kasuan munduan leku bat aurkitzeko saiakera bat". Bera, zehazki, horrek asko "bultzatu" duela aitortu zuen.

Idazteko arrazoiaren artean ere komunikatzeko "behar" bat dago: "Zerbait esateko behar bat; ez dugu idazten zerbait polita egiteko, zerbait esateko baizik". Esan nahi den hori sorkuntzaren bidez baino ezin dute adierazi: "Komunikazio ezintasun horre-

"ZERBAIT ESATEKO BEHAR BAT DAGO; EZ DUGU IDAZTEN ZERBAIT POLITA EGITEKO"

tan literaturak babesleku eta tempo bat ematen digu. Idazteak denbora hori ematen dizu; bizitzaren gauza garrantzitsuez pentsatzeko beste erritmo bat".

"Baina batez ere, nik uste dut idazten dugula badakigulako sorkuntza prozesu hori ematen ez bada ez garelako helduko nahi dugun hori adieraztera. Horregatik niretzako idaztea da pentsatzen dudana deskubritzea". Idazketa prozesua deskribatzeko "deskubrimendua" hitza erabili zuen Jaiok: "Liburu bat idazten hasten naizenean ez dakit zer kontatuko dudana. Idazteko sentitze edo intuizio bat dut, baina nire itxaropena da prozesu horretan zer esan nahi dudana aurkitzea". Linterna batekin ilunetan joatea bezala dela esan zuen. Horren harira, idazteko modu desberdinak daudela azaldu zuen Jaiok, eta idazle batzuk idazten hasi aurretik gertatuko dena oso argi izan behar dute, eta beste batzuk ez: "Bi modu daude: erantzunez edo galderaz beteta idaztea. Nik galderaz betea idazten dut". Idazketa prozesuan erantzunak aurkitzearen "itxaropena" du.

Irudi batetik idazten hasten da, hain zuzen, Jaiok: "Hori deskribatzen hasten naiz eta poliki horrek zer esan nahi duen ateratzen dut". Idazlearen iritziz, ez dute zertaz idatzi aukeratzen: "Neurri batean bai; buruan zerbait daukazu eta azkenean inguratzen saiatu eta ez duzu beste erremediorik gai horri buruz idaztea baino".

Idazlearen obretan agertzen den gai bat pertsonen arteko inkomunikazioa da. "Konstante bat da; gizakien arteko ezintasun, oztopo edo arazo horiek. Esan gabeko hitzak, gehienetan, esaten ditugunak baino garrantzitsuagoak dira.



Karmele Jaio idazlea Iortian.

"Halako gauzek herria egiten dute"

Aurten 25 urte bete dira Artxabal euskara taldeak Irañetako inauteriak berreskuratu zituenetik. Herri ihotearen berreskuratze prozesuaz eta bere egungo osasunaz aritu ginen Irañetako ihote egunez, otsailaren 3an

Alfredo Alvaro Igoa IRAÑETA

1 Negu luzea alaitzeko ospakizunen bat behar zenuten?

Javier. Beti ibili gara lehengo ohiturak berreskuratu nahian. Esaten genuen: "lehen egiten genuen hau, edo bestea, ez dakit zer". Hitz egin eta hitz egin eta: "lehen hemen ihoteak ospatzen ziren. Zergatik ez ditugu berreskuratzen?" Garai hartan Artxabal euskara eta kultur taldea genuen. Haren aldetik ere sortu zen ekimen hau. Eta ordutik urtero egiten segitu dugu.

2 Nola berreskuratu zenuten ihotea?

F. Aiton-amonekin hitz egin genuen, inauteria nola egiten zen jakiteko. Haiei entzundakotatik, antzeko gauzak egiteko asmoz hasi ginen: panpina bat egiten zen, janzteko modua eta zer jaten zuten. Azaldu ziguten ardi bat hiltzen zutela eta hura



Floren Beraza Gastesi eta Javier Iribarren Simon, Irañetako ihote segizioko kideak.

zela jatekoa: ardiaren tripotxak gosaltzeko, ardikia bazkaltzeko eta hondarrak afaltzeko. Ihotea

errepublika garaian-edo galdu zen. Amonak eta aitak zerbait esan zidaten. Markorenako Jus-

tok ere esan zigun nola egiten zuten. 1922 eta 1926 artean jaiotakoak ziren, eta aurrerago ere.

3 Aurre prestaketak nolakoak izan ziren?

J. Suposatzen dut lehengo ihoteak desberdinak izanzen zirela. Guk gure nahietara moldatu ditugu. Ezpelak etxeetan jartzearena garai batean nola egiten zen ez dakit. Edo erabiltzen dugun jantzia benetan halakoa zen. Guk gure modura antolatu ditugu, gutxi gorabehera lehengo gauzak mantendu nahian. Uste dut nahikoa lan polita egin dugula.

4 Jasotakoaren kalkoa egin zenuten?

F. Saiatu ginen gutxi gorabehera hori egiten. Bagenekien neska ezkongabeei ezpela jartzen joaten zirela. Garai hartan mutilak ziren parrandan ibiltzen zirenak, neskak ez. Gutxi gorabehera gauza bera egiten hasi ginen. Arropa zati batzuekin lotutako ezpel adaxkak uzten ditugu etxeetan. Gosaldu ondoren egiten dugu hori.

5 Kalkoak arriskua du, garaiak aldatu direlako, ezta?

J. Jakina. Orain bakoitza nahi duen moduan ateratzen da, batzuk betiko janzkerarekin, besteak nahi duten moduan mozorrotzen dira. Hala egiten dute gazteek. Ez dakit lehen hemen makilekin joko zen, beste herri batzuetan bezala. Halakorik ez dugu egin. Beharbada lehen bakarrik mutilak izanzen ziren parte hartzen zutenak, orain denek hartzen dugu parte.

F. Hasieran ez zegoen problema-rik, denok jaten genuen ardikia. Baina jende gehiagok parte hartzeko eta bazkaltzeko oilasko izterrak labean edo beste zerbait prestatzen dugu. Jende askori ardia ez zaio gustatzen, edo sekula ez du probatu eta nazka ematen dio... Beraz, bazkarian erdi eta erdi jaten da. Hor pixka bat zabaldu dugu, moldatu dugu festa bizirik mantentzeko.

6 Ezpel paxoa nori jartzen diezue?

J. Emakumezkoek jartzen jarraitzen dugu bakarrik.
F. Behin baino gehiago emakumezkoak egon dira eta esan izan dute: "mutilei jarri behar diegu".
J. Oraingoa nahaste-borraste pixka bat da: zahar edo gazte, denei jartzen diegu.

7 Zer sasoiarekin iritsi da inauteria gaur egunera?

J. Gazteek ez dute janzkera jarraitzen, baina ateratzen dira. Gehien bat 7 eta 14 urte artekoak. Horiiek janzten dira eta gustura hartzen dute. Kalejira egiten dute, eta panpina erretzerakoan dantza egiten dute. Jarraipena izanzen du. Guk ere jarraitzeko urte batzuk baditugu, beraz, ihoteak iraunen du.

8 Gazteek "betidanik" ezagutu dute ihotea, ezta?

F. Hala da. Hasieran, astokiloek nahiko gogorrak ginen, eta jende guztia zikintzen genuen. Ikusten genuen pixka bat zakarra izanez gero problemak izanzen zirela. Jendea hurbildu beharrean aldendu egiten zen. Hasi ginen txukunagoak izaten, mundu guztiak parte hartu ahal izateko. Ezinbestekoa zen.

9 Emakumezkoek parte hartzen dute?

J. Bai. Neskak eta haurrak. Helduak ere mozorrotzen dira. Elkarrekin ateratzen gara kalejiran.

10 Parte hartzaileek ihotea hobetzeko ekarpenik egiten dute?

F. Jende berak antolatzen dugu, eta beste guztiek parte hartzen dute. Ihote bilera deitzen dugu eta beti bospasei gaude. Proposamen berririk ez dago.

J. Aurtengo berrikuntza izan da gosariko tripotxak Florenek eta anaiak egin dituztela. Oso onak! Baina antolakuntzan betiko jendeak egiten du, bai. Etorkizunean ez dakit nola moldatuko den, ikusiko dugu.

F. Ilbeltzaren 29an hil genuen ardia. Bospasei aritzen gara horretan eta ardikia zatitzen. Bitartean ardi txuletak jaten ditugu. Ongi pasatzeko modua da. Estreinakoz odola jaso genuen eta elkartean egin genituen tripotxak, gure modura. Dezenteko lana: hiruzpalau ordu. Baina merezi du.

11 Zer ematen dio inauteriak Irañetari?

J. Bizitza. Herri txikietan gauzak ez badira antolatzen... Bakoitzak bere bizitza egiten du. Kalean girorik ez da sortzen. Halako gauzek jendea elkartzen dute. Elkartearen inguruan bazkari-afariak sortzen dira. Halako gauzek herria egiten dute.

ZURE PROIEKTUA GARATZEKO LAGUNTZARIK BEHAR AL DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA



619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

